

413 orotakia, 2000ko ekainaren 9a
JARDUN ELKARTEA

● A L E B E R E Z I A

Berrigara





ja, ja

aja!

opel agila berria hasieran ja ja, gero aja!

Hasiera baten, Agila berriak berezi samarra eman lezake, baina hiriko auto adimendun baten aurrean gaude. Auto txikia da, baina kanpotik; izan ere, Agila berriaren barrua zabala da oso, edozertarako tokia dauka. Atzeko eserleku benetan erosoak lurraren mailan tolesta daitezke, eta 1.250 litroko tokia egin. Baina, horretaz gain, jarlekuen alturak primerako ikuspen eta maniobralitatea eskaintzen dute. Zenbat eta hobeto ezagutu Agila berria, orduan eta gehiago errepikatuko duzu "aja!".

Zatoz zeure kontzesionariora eta deskubritu.


OPEL

TALLERES OLA

Olabarrena auzoa z/g. Tf. 943 76 33 44 / 45 / 46 / 47. BERGARA
Zerbitzu ofiziala ARRASATEn

TAKOLO AUTOAK, S.L.

Araba etorbidea 3 (Eskatu pabilioia). Tf. 943 79 05 86



12.

BENITO LERTXUNDI

Eguakitzeko kontzertua aitzakiatzat hartu, eta berriketaldia hartaz eta honetaz.



GOITB BERGARAN!

Behin behineko irtenbidea bada ere, aste honetatik aurrera GOITB ikusiko da Bergarako etxe askotan. Gainera, Pazkuei buruzko bereziak eskainiko dira jaien biharamunean GOITBn.

4. Agenda eta zerbitzuak

Jaietan irekita izango diren farmaziak, okindegiak, intereseko telefonoak...

6. Jai egitaraua

Jaietako egitarau osoa.

11. Kantaldia

Begarako Orkestra izango da Benito Lertxundi kantari dela egingo den saioko beste protagonista.

15. Gazteago ginenean...

Pazkuak aldatuz joan dira urtetik urtera. Argazki zaharrak errebisatu besterik ez dago.

19. Errekortadoreak

Begarako lau mutil gazte zezenaren aurrean ibiliko dira estilo handiz errekorrea egiteko, eta, gainera, anilak adarretan sartzeko.

22. Gorlako auto igoera

Zapatuan X. edizioa, Euskadiko Mendiko Txapelketarako puntuagarria.

25. Zezen festa

Xabier Markuaturekin berbetan: aurtengo toreatzaileetako bat.

30. Dantzaldiak

Nueva Alaska eta Luhartz taldeak izango dira Pazkuetara camp musika ekarriko dutenak.

33. Antzerkia

Hankagorri taldeak, umeendako "Bonberoak" erakutsiko du zapatuan; Trapu Zaharra taldeak "Eroak" helduendako domekan.

34. Sukaldariak

Alberto Ugalde eta Luis Mari Beistegirekin berriketan.

37. Pegatina

Idoia Elorza eta Mireia Lizarralde izan dira lehiaketako irabazle: "Galtziak miñ? Ba... eiiñ!"


41. Txoznak

Biziberriturik datoz txoznak aurten; ardura horixe hartu du sortu berri den Txozna batzordeak.

45. Atrebentzia ezpada

Zer da gehixen gustatzen jatzuna Pazkuetan?

46. Erretratu zaharra



ROCK TAUPADAK


Hamabi talde Bideberri eta bi San Martin plazan. Kanpoko hamar talde eta lau Bergarako. Aurten ere aukera zabala.



38.

BALSA JAITSIERA

Zazpi urte eta gero berreskuratu da Deba ibai garbiaren aldeko jaitsiera ikusgarria.



Tf. 943 76 56 88

J. Alberto Gorosabel Mendizabal doktorea

Odontologia orokorra

Inplanteak

Ortodontzia

Ahoko zirurgia

Fraiskozuri 5A, 1-D

Berrigara



Berrigara

413 zenbakia. Ale berezia
2000ko ekainaren 9a.

Errotalde Jauregia. 20570 Bergara
Telefonoa: 943 76 03 97.

Faxa: 943 76 29 77

Posta elektronikoa:

berrigara@topagunea.com

Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria: Edu Mendibil.

Erredakzioa: Monika Belastegi,
Aintzane Irizar, Edu Mendibil.

Maketazioa: Iñaki Iturbe.

Publizitatea: Uxue Zabaleta.

Harpidetza: Itziar Kortabarria.

Testuen zuzenketak: Estepan Plazaola,
Alex Labaien.

Erredakzio kontseilua: Eneko Azkarate,
Alex Labaien, M. Angel Elkorobereizibar.

Banaketa: Txantxangorri taldea.

Inprimategia: Gertu Koop. Elk. (Oñati).

Azala: Berrigara.

Tirada: 5.300 ale.

Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta
iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



Begarako
Udala



Gipuzkoako
Foru
Aldundia



Eusko
Jaurlaritzako
Kultura Saila

ANTZERKIA

► **"El compromiso"** bihar
zapatua, 22:30ean Arrasateko
Amaia antzokian.

MUSIKA

► Jam. Gaur, eguakitzza,
**Baron Rojo, Muro eta Tierra
de Nadie** taldeak. Bihar, zapa-
tua, **Dance Party** eta eguene-
an, hilak 15, **Testament**.

► **Factoria 77** eta **The hot
dogs** domekan, gauerdian,
Infernukua tabernan.

IKASTAROAK

► **Ardo dastaketa ikasta-
roa**, ekainaren 27tik aurrera,
Jardun elkarteak antolatuta.
Irakaslea Mikel Garaizabal
enologoa eta sumillerra izango
da. Plaza mugatuak. Izena
emateko azken eguna ekaina-
ren 20a izango da.
Argibide gehiago,
943 76 08 19 zenbakian.



The hot dogs (argazkian) eta Factoria 77
Infernukua tabernan domekan.

Alkatearen agurra

Gobernu-talde berria duen beste legegaldi batean gaude. Bertan, batzuen esperientzia eta aurpegi berriek ekarritako kementa eta indarra elkartzen dira. Ziur nago, batzuen eta besteon artean, gure Bergara maiteari bultzada ederra emango diogula. Gure aurrean lau urte ditugu, proiektu zahar eta berriak aurrera eramateko. Bergarak epe laburrean eta ertainean izan behar duenaren oinarriak finkatzeko, hau da, XXI. mendeko Bergara. Aurrean dugun lan hau ez da berriketa hutsa, eta ziur nago gutako denok geure baitan dugun onena emango dugula horretarako.

Aurten, bergarar esanguratsu baten jaiotzaren mendeurrena betetzen da, Justo Garate doktorearena, hain zuzen ere (1900-VIII-5). Eta horregatik, pertsonaia honen bizitzaren aipamena egin dugu jai-egitarauaren erdiko orrialdeetan.

Bestalde, beste bergarar ospetsu baten heriotzaren mendeurrena ere betetzen da aurten, Martzial Agirre eskultorearena (1900-V-10). Arrazoi hori dela eta, Udalak eta Bergarako Filatelia eta Numismatika taldeak erakusketa bat antolatu dute bere oroimenez.

Baina jairako unea da. Laga ditzagun alde batera, egun batzuetarako behintzat, eguneroko betebeharrak eta nahigabeak, eta goza dezagun alaitasunez beteta gure jai hauetaz. Nire zorionik beroenak bergarar guztiei eta gure oroitzapena arrazoi bat edo bestea dela eta, egun hauetan gure artean egongo ez diren guztientzat. Zorionak!

Victoriano Gallastegi, Bergarako alkatea

► **Lanbide Hastapena** pro-
graman izena emateko epea
datorren ekainaren 30era arte

zabalik dago. 16-18 urte bitarte
izatea eta eskolaz kanpo ego-
tea beharrezkoa. Interesatuak
Udaleko Enplegu Zerbitzura jo
dezakete: 943 77 91 65.

DEIAK

► **Udako Euskal
Unibertsitateak** antolatu
dituen ikastaroetarako izena
emateko epea ekainaren 16ra
arte zabalik dago. Bergarako
Udalak aipatutako ikastaroen
matrikula ordaintzeko lagun-
tzak ematen ditu. Argibideak
943 77 91 66 zenbakian.

Iturkintza • Berogintza • Bainuak

Laskurain

Barrenkalea 35

ONDO PASAU JAIXAK!!

☎ 943 76 24 89



URTEURRENA

Angeles
Lazpiur Gisasola

Lehen urteurreneko meza domekan, ekainak 11, goizeko 11:30ean, Santa Marinan.




Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Jose
Zezeaga Zubiate

Lehen urteurreneko meza domekan, ekainak 11, goizeko 10:30ean, Uberako San Pablo elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Digna
Barrutia Larrañaga

Lehen urteurreneko meza domekan, ekainak 11, goizeko 11:30ean, Santa Marinan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

► **AEK euskaltegia.** EGA ikastaroa ekainaren 27tik uztailearen 28ra arte eta glotodidak-tika ikastaroa uztailean (100 ordu). Izena emateko epea ekainaren 22ra arte zabalik. 943 76 05 18.

► **San Joxepe** jubilatuen elkartearen ekainaren 19an eta 20an Harrizko Monastegira, Calatayudera eta Zaragozara joateko irteera antolatu du. Izen-ematea (11.300 pezeta) San Joxepe elkartearen bertan. Argibideak: 943 76 21 40.

► **Udaberriko kontzerturako** sarrerak eta ondorengo herri bazkarirako txartelak ohiko tokietan salgai.

► **Aretxabaletako I. Mendi Martxa** ekainaren 11n. Irteera goizeko 8etan izango da Herriko Plazan. Ibilaldiak 28 kilometro izango ditu, besteak beste, Larrino, Urkulu, Ugastei, Degurixa, Kurtzebarri eta Mendiolatik igaroz. Izen-ematea (500 pezeta) egunean ber-

tan egin daiteke, goizeko 7:15etik aurrera.

OHARRAK

► **San Martzialgo** kanpako taberna eta txoznaren esplotazioa adjudikatu nahi du Udalak, Idazkaritzan aurki daitezkeen baldintza pleguen arabera. Eskaearak Udaletxeko erregistro orokorrean aurkeztu beharko dira ekainaren 16ko arratsaldeko 13:30ak baino lehen.

JAIAK

► **San Esteban** Elkoartiko jaia domekan. Eguerdiko 12etan etxaflero jaurtiketa, ondoren, auzo meza; gero, salda eta pintxoak bildutakoentzat.

KINTADAK

► **1958an jaiotakoen afaria** ekainaren 17an Antxonin. Txartelak Intxortan eta Antxonin.

Farmaziak

- Eguakitza 9:**
CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.
Zapatua 10:
PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.
Domeka 11:
PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.
Astelehena 12:
GUALLAR. S. Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.
Martitzena 13:
ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.
Eguaztena 14:
MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.
Eguena 15:
CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.

Ogia

- Domeka 11:** Mizpildi.
Martitzena 13: Ogizun.

Telefonoak

- OSASUNA / LARRIALDIK**
- | | |
|----------------|--------------|
| SOS deiak | 112 |
| Gurutze Gorria | 943 76 55 76 |
| Larrialdiak | 943 46 11 11 |
| Anbulantzia | 943 55 49 62 |
| Udaltzaingoa | 943 77 91 06 |
| Ertzaintza | 943 76 53 40 |
| Suhiltzaileak | 943 78 28 00 |
- GARRAIOAK**
- | | |
|-----------|--------------|
| Euskotren | 943 45 01 31 |
| PESA | 902 10 12 10 |
| Taxiak | 943 76 19 50 |
- UDALA**
- | | |
|--------------|--------------|
| Udaletxea | 943 77 91 00 |
| Kultur Etxea | 943 77 91 58 |
- BESTELAKOAK**
- | | |
|-----------|--------------|
| Jardun | 943 76 36 61 |
| Postetxea | 943 76 26 85 |

- 🔧 Ikastaro teoriko trinkoak euskaraz eta gaztelaniaz
- 🔧 Ziklomotorreko lizentzia astebetean. AZTERKETARIK GABE!
- 🔧 Izena ematean, %10eko deskontua Gazte Txartelarekin

Gaindi ezazu autoaren azterketa teorikoa 16 urterekin!



Tf. 943 76 16 63

Jai egitaraua

Eguakitza 9

- ▶ **20:00** Jaiei hasiera emango zaie, etxafleru jaurtiketa eta BITORIANATXOren JAITSIERAekin.
- ▶ **20:15** Udal Musika Bandaren KALEJIRA, hiriguneko kaleak alaituz.
- ▶ **20:30** Matxiategin, BARRAKAK irekitzea.
- ▶ **20:30** Bideberriko TXOZNAK irekitzea.
- ▶ **20:30 - 21:30** DANTZALDIA Joselu anaiak taldearekin, San Martin plazan.
- ▶ **22:30** Benito Lertxundi eta Bergarako Orkestra Sinfonikoaren KONTZERTUA, Udal Pilotalekuan.

Egitaraua

1. zatia

Overture to a new age
Jan de Haan
Euskal Herria Kantuz
Alfredo Gz. Chirlaque
Zuzendaria: Alfredo Gz. Chirlaque

2. zatia

Urrundik heldu naiz
Txori ttikia
Oi Zuberora
Bihotz
Formak
Udazken koloretan
Baldorba
Oi lur
Bizkaia maite
Oi Ama Euskal Herri
Zuzendaria: Enrique Ugarte
Egilea: Benito Lertxundi
Orkestrarako moldaketa: Enrique Ugarte

- ▶ **23:00** DANTZALDIAren jarraipena.



Bitorianatxo, eguakitzean, 20:00etan.

Joselu anaiak taldea, San Martin plazan.
▶ **24:00** ROCK KONTZERTUA Bideberriin: Chucho, La nube, Niños mutantes eta Fly Shit.

Zapatua 10

- ▶ **10:00** DIANA, auzoak esnatu ondoren, San Martin plazan elkartuko dira
- Oxirondotik, Udal Txistulari Banda.
- Labegaraietatik, Kobok dultzaineroak.
- Bolutik, losu eta lokin soinu joleak.

Ondoren

- MIZPIRUALDERA BISITA egingo dute dultzainero eta txistulariek.
- ▶ **10:00** Bergara Hiria jubenilen eta eskolartekoen Xake Txapelketa M. Altuna institutuan.
 - ▶ **10:00etatik aurrera** X. AUTOMOBILEN GORLAKO IGOERA.
 - ▶ **11:00** Atletismo probak Agorrosinen.
 - ▶ **11:30** Elkartearen arteko SUKALDARITZA LEHIAKETA. Bakailaoa pil-pilean prestatuko dute elkarteek San Martin plazan, trikitilariak alaituta.
 - ▶ **16:30** PILOTA PARTIDU interesgarriak Udal Pilotalekuan.
- Berasaluze VIII.a-Barriola/
Beloki II.a-Patxi Ruiz
- Alustiza-Errasti/Unanue-Armendariz (Pentekoste Saria)
- Galarza IV.a/Pinedo
 - ▶ **18:00** Hankagorri taldearen "Bonberoak" KALE ANIMAZIOA, San Martin plazan.

- ▶ **18:00** ERREKORTADOREEN Euskadiko TXAPELKETA.
Txapelketa honetan Tolosako 6 bikotek, Ordiziako batek, Hendaiako beste batek eta Bergarako bi bikotek parte hartuko dute.
- ▶ **19:30** BONBA JAPONIARRAK haurrentzat, San Martin plazan.

Ondoren

- Erraldoi, kiliki eta buruhandien KALEJIRA, Udal Txistulari Bandak, Kobok Bergarako dultzainero taldeak eta Kukumako hankaluzeez lagunduta.
- ▶ **22:00** ROCK KONTZERTUA, Bideberriin, From head to toe, Hell Brains, Glitter Souls eta Cool Panic taldeekin.
 - ▶ **22:00/22:30** Bide ertzean eta Peste taldeekin KONTZERTUA, San Martin plazan.
 - ▶ **23:00** DANTZALDIA Espoloian, Drindots taldearekin.

Domeka 11

- ▶ **08:15** Udal Txistulari Bandarekin ALBORADA.
- ▶ **08:30** Elgoibarko dultzaineroen eta Murtikuko Udal Musika Bandaren KALEJIRA.
- ▶ **09:00** Lehen ENTZIERROA, Manzarbeitiaren ganaduekin. Ibilbidea:



Buruhandiak, zapatuan, 19:30ean.




ARATZ

Zurradero 6, behea
Telefonoa: 943 76 70 67 Mobila: 607 48 71 19

ALBAITARI KLINIKA

*Jai zorientsuak opa dizkiegu
gure bezero guztiei!*



Sukaldaritza lehiaketa, zapatuan, 11:30ean.

Gaspar jatetxeko garajetik irten, Barrenkalea, Bidekurutzeta, San Martin plaza, Ramon M^a Lili eta zezen plaza. Segidan, ENBOLATUAK.

- ▶ **09:00** XXVII. Ageriko PINTURA LEHIAKETA. Beart elkarteak antolatua, bere egoitzan (Bolu kalea, 49).
- ▶ **09:00** TXIRRINDULARI LASTERKETA: 23 urtez azpikoentzat "LXV. Pentekoste Saria".
- ▶ **10:00** Nazioarteko Bergara Hiria Xake Txapelketa M. Altuna institutuan.
- ▶ **11:00** MEZA NAGUSIA San Pedro elizan, Udal korporazioa partaide dela, eta Udal Musika Bandak eta Udal Txistulari Bandak lagunduta.
- ▶ **11:30** Hamabost urtez azpiko bikote gazteendako XXIII. EUSKADIKO DANTZA TXAPELKETAren kanporaketak, San Martin plazan. Lehenengo 15 bikoteak sailkatuko dira.
- ▶ **12:30** Udal Musika Bandaren KONTZERTUA, Espoloian.

Egitaraua

Entre azahares. Pasodoblea
A. Gz. Chirlaque
El barbero de Sevilla. Obertura
G. Rossini

When you believe "Egipto-ko printzea"ren gai nagusia
S. L. Schwartz
El barberillo del lavapiés. Zarzuela
Barbieri
A tribute to Elvis
T. Oud
Zuzendaria: Alfredo Gz. Chirlaque

▶ **17:15** San Martin plazatik zezen plaza-raino KALEJIRA Elgoibarko dultzaineroek lagunduta. Parte-hartzaileak: mandakoak, agoaziltxoak, agintariak eta herriko zaletuen koadrilak. Geldialdia egingo dute Alzelai-enean.

▶ **17:30** Hamabost urtez azpiko bikoteendako XXIII. EUSKADIKO DANTZA TXAPELKETA San Martin plazan, Udal Txistulari Bandak lagunduta.

▶ **18:00** LOTUTAKO GLOBOAN IGOERA Ipintzako zelaian.

▶ **18:00** ZEZEN FESTA, Salamancako Valrubio ganaduzalearekin, Zezen Zaleak taldearen laguntzaz.

Ondoren

Elgoibarko dultzaineroek herriko kaleak alaituko dituzte.

▶ **18:30** XXVII. Ageriko PINTURA LEHIAKETAKO SARI BANAKETA, Beart elkartearen egoitzan (Bolu kalea, 49). Egindako koadroekin erakusketa zabalduko da bertako aretoan.

▶ **19:30** Trapu Zaharra antzerki taldeak egindako "Eroak" KALE ANTZERKIA, San Martin plazan.

▶ **23:00** Nueva Alaska taldearekin CAMP DANTZALDIA, San Martin plazan.



Barrakak, egunero zirrara sortzen.



COMERCIAL BRUNET



Ozaeta 11-13, behea. **BERGARA** (Gipuzkoa)
Tf: 943 76 31 52. Tf/Faxa: 943 76 70 12. Mugikorra: 670 824 976

Astelehena 12

► **08:30** KALEJIRA, Los Incansables txarangak alaituta, entzierroaren ibilbidetik, zezen plazaraino.

► **09:00** Bigarren ENTZIERROA, Manzarbeitiaren ganaduekin. Ibilbidea: Gaspar jatetxeko garajetik irten, Barrenkalea, San Martin plaza, Bidekurutzeta, Ramon M^a Lili eta Zezen plaza. Segidan, ENBOLATUAK, Los Incansables txarangak alaituta.

► **10:30** Ollagorra elkarateak antolatutako PLATER TIRAKETA, Gorlako Hirubide zelaian.

► **11:30 - 13:30** Ipintzako patioan haurrentzako JOLAS PARKEA: karrak, gaztelu puzgarriak eta abar. Barraketan haurrentzat prezio bereziak izango dira.

► **11:30 - 13:30** Udal Musika Bandaren KALEJIRA.

► **12:30** Udal Musika Bandaren KONTZERTUA, Espoioian.

Egitaraua

Gallito. Pasodoblea

S. Lope

El metromono de Maelzel. Fantasia M.

Gz. Bastida

El caserio. Zarzuela

J. Guridi

Night and day

C. Porter

Bergarako ereserkia

A. Gz. Chirlaque

Zuzendaria: Alfredo Gz. Chirlaque

► **16:00 - 20:00**

JOLAS PARKEAren jarraipena, haurrentzat. Seminarioko patioan.

► **16:30** PILOTA PARTIDU interesgarriak Udal Pilotalekuan.

- Agirre-Imaz/Esain-Goñi III.a

- Salaberria-Rai/Etxaniz-Lasa III.a

(Pentekoste Saria)

- Urionaguena-Balerdi/Goñi-Auxkin

► **18:00** ZEZEN IKUSKIZUNA, gazteentzat,



Enbolatuak, astelehenean, 09:00etan.

Gorritiren ganaduekin, Los Incansables TXARANGAK animatuta, zezen plazan.

Ondoren

Los Incansables txarangaren KALEJIRA.

► **20:00 - 21:00** DANTZALDIA, Etzakit taldearekin, San Martin plazan.

► **22:00** ROCK KONTZERTUA, Bideberrin, Safety pins, X-at eta Zartateko taldeekin.

► **23:00**

Luhartz taldearekin DANTZALDIA, Espoioian.

► **23:30**

DANTZALDIAren jarraipena, Etzakit taldearekin, San Martin plazan.

Martitzena 13

► **08:30** KALEJIRA, Los Incansables txarangak alaituta, entzierroaren ibilbidetik zezen plazaraino.

► **09:00** Hirugarren ENTZIERROA, Manzarbeitiaren ganaduekin. Ibilbidea: Gaspar jatetxeko garajea, Barrenkalea, San Martin plaza, Bidekurutzeta, Ramon Maria Lili eta zezen plaza Segidan, ENBOLATUAK, Los Incansables txarangak alaituta.

► **11:30 - 13:30** HERRI TRENAren ibilaldia, Fraiskozuri plazatik irtenda.

► **12:30** Ikusgarri taldearen emanaldia, MOTOZERRAZ egurra lantzeko IKUSKIZUNA.

► **13:00** POTEOA trikitilariekin eta HERRI BAZKAIXA, herriko koadrilak antolatuta, San Martin plazan.

► **16:30** PILOTA PARTIDU interesgarriak, Udal Pilotalekuan.

- Koka-Pascual/Galarza V-Arroyo II.a
- Pentekoste Sariko finala
- Chafee-Apeztegia/Arbizu-Nalda III.a

► **17:00-21:00** HERRI TRENAren bira.

► **18:00** ENBOLATUAK, herriko koadrilentzat zezen plazan, Manzarbeitia ganaduekin, Los Incansables txarangak alaituta.

Ondoren

Los Incansables txarangarekin KALEJIRA.

Egun osoan zehar kaleak alaitzen:

- Xafre eta Zaharra eta losu eta lokin

TRIKITILARI bikoteak.

- Los Incansables TXARANGA.

► **19:00** DEBA ibaiaren JAITSIERA, BALTSAN.


► **20:00 - 21:00 eta 22:30etik aurrera**

DANTZALDIA Gozategi neba-arrebekin, San Martin plazan.

► **24:00** San Martin plazan elkartzea, eta BITORIANATXOren igoera.



Herri bazkarixa, martitzenean, 13:00etan.



Manufacturas LARRAÑAGA

Lan-babeserako artikuluak, lan-prebentzio eta seinaleztapena, lanerako jantzigintza

Leizeaga 1. Tf. eta faxa 943 76 59 53.
Posta kutxa 140. 20570 BERGARA (Gipuzkoa)

Zorionak eta ondo pasau!

VENTANAS SAN MIGUEL

Ibargarai 4 Tf. 943 76 12 21 Bergara
Iturrioz 24 Tf. 943 79 78 10 Arrasate
Toribio Etxeberria 22 Tf. 943 12 08 12 Eibar
Errioxa 17 Tf. 945 25 88 92 Gasteiz

*Zure ongizatea
babesteko gaude*



943 76 12 21



**VENTANAS
SAN MIGUEL**

SALDUOSTEKO ZERBITZUA (URTEBETE DOAN).

NEURRIRA EGINDAKO LEIHOAK.

EREDU ETA MOTA GUZTIETAKOAK.

AHOLKULARITZA TEKNIKOA ETA KONPROMEZURIK GABEKO AURREKONTUA.

30 URTEKO ESPERIENTZIA ETA 100.000 BEZEROTIK GORA IZATEA DIRA GURE BERMEAK.

Elgetako bidea
(gasolindegitik
300 metrora,
"Cotones
Agirrezabal"en
ondoan)
943 76 39 40 / 39 41
Faxa: 943 76 56 38
BERGARA

TELAETXE S.A.

OIHALAK eta OIHAL PUSKAK

Zetak, toailak, izarak, tapizeriak...

ORDUTEGIA
Astelehenetik
zapatura:
10:00-13:00
eta 16:00-20:00

*Betiko
lekuan
gaude!*



- ▶ Sukalderako eta saloirako kortinak neurrira
- ▶ Edredoiak, alfonbrak, nordikoak
- ▶ Etxeko txoko guztietarako oihalak
- ▶ Aurrekontua konpromiso barik

**Neurketatik hasi eta kolokaziora arte,
den-dena egingo dizugu**

Ondo pasau Bergarako jaixak!



Estella ortopedia

Javier Estella, ortopedia teknikari tituluduna
OSAKIDETZAREKIN ETA LAGUN AROREKIN HITZARTUA

Matxiategi 5, Telefonoa: 943 76 19 63



Ondo pasa
dezazuela
denok!

Kirol
Ortopedia



Etixerako
laguntza
teknikoa



Mastektomiak

Neurrira eginiko
plantillak.
Oinetakoak



BERGARA Kafea-Pentsioa

EGUNERO

goizeko 7etatik zabalik.

**Gosariak, pintxoak,
bokatak eta meriendak.
Logelak.**



Logelak



Kafetegia

Bidekurutzeta 34. Tf. 943 76 47 23

Ondo pasau jaixetan!

Benito Lertxundi Bergarako Orkestra Sinfonikoarekin Euskadiko Orkestraren lekukoa hartuko du Bergarakoak

Frontoia.
Eguakitzean
22:30ean.

Agortu dira, dagoeneko, eguakitzeko kontzerturako sarrerak. Benito eta Bergarako Orkestra Sinfonikoak eskainiko duten kontzertuak ikusmin handia sortu du. Bertan, Benitok Euskadiko Orkestrarekin grabatutako diskoko hamar abesti entzun ahal izango ditugu.

Tolosan Kilometroak zirela eta, Benito Lertxundi eta Euskadiko Orkestra Sinfonikoak kontzertu bat eskaini zuten, Enrique Ugarte tolosarra zuzendari zela. Bera izan zen Benitoren abestiak Orkestrarako moldatu zituen, eta bera izango da Bergarako kontzertua zuzenduko duena ere.

Duela pare bat urte Orioko arraunlariak gure herrian izan genituen, eta harreman polita sortu zen orkestrakoen eta oriotarren artean. Harreman horretatik sortu zen, hain justu, Bergarako Orkestra eta Benitoren arteko kontzertu honetarako ideia, Benito oriotarra baita, eta arraunlarien laguna, gainera. Beraz, Benitori



Benito Lertxundi, Enrique Ugarte zuzendaria agurtzen.

ANDER GILLENEA

proposamena luzatu, eta honek, bi aldiz pentsatu gabe, baiezkoa eman zuen.

Kontzertuak bi zati izango ditu: lehendabizikoan, Bergarako Orkestra Sinfonikoak, bera bakarrik arituko

da, Alfredo Gonzalez zuzendari duela. Lehenengo parte honek 20 minutu inguru iraungo du. Bigarren zatian, Enrique Ugartek hartuko ditu zuzendari lanak, eta Benitok Euskadiko Or-

kestra Sinfonikoarekin grabatutako diskoko 10 abesti entzun ahal izango ditugu.

Aspalditik ari da Orkestra entsaiatzen, baina eguaztenean eta eguenean Benito Lertxundi bera etorri zen, eta, elkarrekin entsaiatu zuten, eguakitzeko kontzertura begira.

Alfredo Gonzalez esan digenez, "erronka handia da guretzat horrelako muntaia bat egitea, amateurrek garelako eta Euskadiko Orkestraren erreferentzia hor daukagulako".

Azkenik, esan behar da, kontzerturako sarrera gehienak agortu direla, baina kontzertuko egunean bertan, eguakitzean, frontoiko takilan egongo direla salgai geratzen direnak.<



"la Caixa"

Fraiskozuri plaza 7. Telefonoa: 943 76 41 16


*Lurrindegia
Edertze aretoa*
alga

Ibargarai 10 Tf. 943 76 00 85

CLINIQUE

PARFUMS
GIVENCHY

ROCHAS
PARIS



BOUCHERON
PARFUMS
PARIS

PAYOT
PARIS

GUCCI

Benito Lertxundi

"Era honetako asmoak, herritik ateratakoak, oso atsegini ditut"

Ezagutzen duzu Bergarako Orkestra Sinfonikoaren ibilbidea eta lana?

E. Berriki kontatu didate zertxobait, baina aurretik ez neukan bere lanaren eta ibilbidearen berririk.

G. Zer iruditu zitzaizun Bergaratik egin zizuten proposamen hau?

E. Niri beti gustatzen zaizkit horrela, herritik, ateratzen diren era honetako asmoak. Ilusio handiarekin egiten diren gauzak izaten dira, indar fresko batekin eramaten direlako aurrera, eta horrek beti sortarazten du halako bibrazio interesgarri eta polit bat.

G. Zelatan bururatu zitzaizuen Euskadiko Orkestrarekin elkarlanean diskoa ateratzea?

E. Oso ustekabeko gauza izan zen. Tolosan Kilmetroak ospatzen zen, eta Ainhoa Arteta zen Orkestrarekin kantatzekoa. Baina ezinezkoa izan zuen, eta orduan, bururatu zitzaizen niri proposatzea. Ustekabean harrapatu ninduen, eta, gainera, oso egun gutxi nituen pentsatzeko.

G. Beste orkestra batzuekin ere aritu izan zara,



Benito Lertxundi.

"BENITO LERTXUNDI, ORIKO BARDOA" LIBURUTIK

ezta? Kordobako Orkestrarekin, esate baterako.

E. Nik uste nuen dena Tolosan hasi eta Tolosan bukatuko zela. Baina bada-kizu nolakoak izaten diren gauza hauek. Horrela, Euskadiko Orkestrarekin eman

nuen kontzertu batean Kordobako Orkestra Sinfoniko zuzendaria egon zen, eta eurekin aritzeko gonbidapena jaso nuen. Azkenik, joan zen astean bertan Iruñekoarekin aritu naiz. Eta orain, Bergarakoarekin, lau-

garren orkestra ezagutzear nago.


G. Orkestrarekin aritzea berrietasun bat izan da zure karreraren. Horrelako bide berriak jorratzen jarraitzeko asmoa duzu?

E. Nik uste dut horrelako gauzak salbuespen bat, edo zerbait berezia izaten direla. Orkestrarena gauza berezi bat bezala ondo ikusten dut, baina ez dut ikusten nire karrera hortik doanik. Nire bidea beste bat da; nik betiko bidetik jarraitzeko asmoa daukat. Nire asmoa beti izaten da hurrengo kanta. Horrela daramat nire bizitza? Gero, haratago joan liteke? Agian bai, baina hori pentsa dezatela besteek, proposatuz gero, agian, aurrera egingo dut, baina ni ez naiz horrelako gauza berriak egitera abiatuko.

G. Sabino Arana Fundazioak zure urtetako lana saritu du. Zer sentitzen da?

E. Nik beti esaten dut gure lana oso esker onekoa dela. Niretzat, gure omenaldia kantaldiero gertatzen da. Sariak, azken finean, nabarmena den esker on horren isla direla esango nuke, nolabait esatearren, markoan sartzea.<

Argitapen honen edizioko laguntzaile:



kutxa

*gizarte-ekintza
obra social*


ederTU



Pentekoste jai zoriontsuak opa dizkizuegu denoi!

Barrenkalea 23

Masterreka 9



EGUZKITZA jatetxea

Zorionak denoi!




TABERNA



JATETXEA

Plater konbinatuak
Kazuelatxoak
 Menua 900 PTA; gauetan ere bai
Karta, aurrez eskatuta
 Berezitasunak: Entsalada epela,
 Legatz betea, Bakailaua

Aranerreka 30. Bergara.
 Telefonoa: 943 76 14 25.



UGARTE

A R O Z T E G I A



- Apainketa
- Altzariak
- Leihoak
- Ateak
- Horma armairuak



Ondo
pasatu
jaiak!

San Juan, 1 • (Gasolindegiaren parean) • BERGARA • Tel./ Faxe: 943 76 54 91



Saunier Duval



DICOMAN S.L.

San Lorentzo, 21
20.570 Bergara
Laguntza teknikorako zerbitzu
ofizial baimendua
Tf. 943 76 06 61

BEROGAILUAK, KLIMATIZAZIOA ETA UR BEROA

Gazteago ginenean...

Goizean, gau osoa juergan eman ondoren, Hilario Azkargortak goiko erretratua atera zion lagun koadrila honi. Argazkia 1988. urte ingurukoa da eta, antza denez, primeran pasatu zuten elkarrekin. Lokatza txirindulari taldearen kotxearen ondoan ageri badira ere, hauek gaez ibili ziren "tropelean". Alberto Herranek gogoratzen duenez, "argazkian agertzen garenok elkartu eta parranda ederra bota genuen. Batek palomita poltsa erraldoi bat erosi zuen, eta hura gosaldtu genuen txoznetan, Bideberrin. Gero, etxerako bidean, arrautza dozena bat erosi genion base-ritar bati eta arrautzak airera botatzen ibili ginen, Espoioian, eta gu geldi, gora begiratzeke, nori jausiko zain". Argazkian agertzen direnak hauek dira, ezkerretik eskumara:

Makurtuta: Manu Herran, Alberto Herran eta Juan Moreno.

Zutik: Manuel Moreno, Jesus Mari Elizburu, Juan Ramon Dacosta (atzera begira dagoena) eta Markos Jauregi.

Auto gainean: Guiller Gonzalez eta Miguel Igarza.



Udal Artxiboan Pazkuetako argazki zaharrak topatu ditugu, eta protagonisten eskutik orduko kontuak edo anekdotak jaso ditugu. Jaiak hastear daudela eta, atzera begiradatxo bat bota nahi izan dugu. Protagonistak gazteagoak zireneko irudiak dira. Horra hor Pazkuetako oroitzapenak.

Barraketako ilusioa

Pazkuetan barrakak ezinbestekoak dira, eta, bestela, galdetu gaur egungo neska-mutikoei, barrakak etortzeko irrikitan egoten dira eta. Gaur egun etortzen diren atrakziñoei zerikusirik ez daukate garai batekoekin. Hala ere, klasiko batzuk ere hor daude oraindik: tren-txutxua, auto-txoekak, noria eta beste hainbat. Argazkian ikus daitekeen "tiobiboa" ere neska-mutiko askoren ilusio iturria izan da. Jiraka ibiltzen den barraka honek ez dauka beste munduko misteriorik, baina gehienoi lehen gidari praktikak egiteko aukera eman digu: motorrak, suhiltzaileen kamioia, formula itxurako kotxeak... Ander Begiristain eta Gorka Larrañaga lehengusuek ere primeran pasatuko zuten mutikotan hain "Vespa" dotoreen gainean. Argazkia 1972. urtearen ingurukoa da.



B.U.A. ROMAN LARRANAGA FONDOKA

ETXE BERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA-OPARIAK

ONDO PASATU
BERGARAKO JAIETAN!

Bidekurutzeta 16 BERGARA ☎ 943 76 23 94 - 12 65

Kalean gora agertzen den neska koadrila honek primeran pasatzen zuen jaietan. Argazkia ikusi besterik ez dago. Baldarrak koadrilakoak dira, eta neskak eta mutilak elkarrekin ibiltzen ziren. Idoia Murgiondok aipatu digunez, "ziurrenik mutilak aurretik joango ziren, eurek egindako turutak jotzen, eta gu, *Aspertuarte* txarangaren atzetik, dantzan". Argazkia Gaspar tabernaren ondoan aterata dago. Idoiak gogoratzen duenez, "15-17 urte bitartean izango genuen orduan, eta Plazako dantzaldietan, tabernetan eta kalejiran ibiltzen ginen. Nekez edo Egan bezalako taldeen dantzaldietan Plaza bereta egoten zen".

Ezkerretik eskumara: Arantxa Iturbe, Encarna Martinez, Piedad Rios, Beatriz Lonbide (atzerago), Ana Lonbide, Maria Jose Moñux, Raquel Gonzalez Chirlaque eta Idoia Murgiondo.

Koadrilan jai-giroan



B.U.A. ROMAN LARRAÑAGA FONDOA



B.U.A. ARIZONDO

Hau boskotea!

Sukaldari sarituak

1977ko Pazkuetan egin ei zen aurreneko aldiz elkartearen arteko sukaldaritzak lehiaketa. Garai hartan, goizean, ekitaldi gutxi izaten ziren, eta Jai Batzordeak, programa osatze aldera, sukaldaritzak lehiaketa egitea erabaki zuen. Dozena bat elkarte izan ziren lehian. Argazkian, Oilagorako ordezkariak ageri dira Regino Valleren eskutik sari bat jasotzen.

Ezkerretik eskumara: Julian Aranburu, Felix Beitia, Regino Valle, Bittor Alberdi "Satorretxe", Jose Mari Larrañaga eta Eugenio Gabilondo. Reginoren hitzetan, "egun horretan eguraldiak lagundu ez zuen arren, lehiaketa arrakastatsua gertatu zen eta elkarteek primerako erantzuna eman zioten lehiaketari. Oraindik ere programan dago eta giro ona egoten da. Orduko jaietan eguakitzean edo zapatuan festibal on bat ekartzen ahalegintzen ginen eta Frontoia gainezka egoten zen".



B.U.A. ROMAN LARRAÑAGA FONDOA

Sonbreruak, turutak eta beste zenbait tramankulu ere egun hauetako jantzien osagarri izaten dira. Txantxetarako aukera ez da galdu behar, eta umore ona izan dadila nagusi aurten ere. 1991ko argazki honetan, Luis Pumar, Alfredo Gonzalez, Aitor Azkarate, Julen Narbaiza eta Martin Begiristain ikus ditzakezue. Julen Narbaizak komentatu digunez, "saso hartan, Pazkuetako astelehenean, Gau-Txori koadrilakook bazkaria egiten genuen, eta argazkia Barrenkalean ateratakoa da. Astelehenean egiten genuen bazkaria, gauez prisa barik ibili ahal izateko. Orain, berriz, martitzenean egiten dugu, baina ez da egoten lehen egoten zen giroa, martitzeneko ambienteak behera egin du. Badirudi herri bazkariarekin giro hori berreskuratu nahi dela".

Nerea

Lentzeria • Kortse-denda • Bainujantziak

Simon Arrieta plaza 1 Tf. 943 76 19 52

Ondo pasau
jaixak!



J A N T Z I D E N D A

LASAGABASTER

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55



E T X E A P A I N K E T A



TORREKUA



ERRETEGIA

Batik bat arraina • Karta • Eguneko menuak • Goizeko 7:00etatik zabalik

Zorionak denoi!



Ibargarai 37

Tf. 943 76 50 99



ELKAR

ELEKTRAGINTZA

**ZURE
ZERBITZURA!!**

Mota guztietako instalazioak



943 76 00 00

Koldo Eleizalde, 8.


BERGARA

Mizpildi 8

943 76 12 32



MIZPILDI



OKINDEGIA



Ondo pasa ditzazuela jaixak!

**Eta kafe
dastaketa!**

Matxiategi 1

943 76 72 73

Errekortadoreen Euskadiko txapelketa

Bederatzi bikote lehiatuko dira zezen aurrean, tartean, herriko bi

Ibargaraiko
zezen
plaza
Zapatuan
18:00etan.

Errekortadore ikuskizuna izango da aurten lehenengo aldiz Ibargarain. Zezen plazan, Euskadiko Errekortadoreen txapelketa jokatu da. Euskal Herri osoko bederatzi bikotek hartuko dute parte, hauetako bi bergako lau gaztek osatzen dituzte.

Euskadiko Errekortadoreen txapelketa jokatu da jaietan estreinakoz. Bederatzi bikote arituko dira lehiatzen, eta Bergarak ere izango ditu ordezkariak bertan: batetik, Unai Arana eta Mikel Uribealgotok osatzen duten bikotea, eta bestetik, David Maestre eta Iker Agirrek osatzen dutena. Zezenek dagokienez, Nafarroako Hnos. Idiazabal Villafrañca ganadutegikoak izango dira. Bi sari egongo dira: erreorte artistiko onenarendako eta anila gehien jartzen dituen bikotearendako.

Errekortadoreez gain, txekorketek ere badute euren tokia jaietako egitarauan. Antonio Julian Torret kordobarrak eta Iker Markuartu laudiarrak, Salamankako Valrubio ganadutegiko txekorrak toreatuko dituzte.

AURKAKO JARRERAK

Jaietan zezen festa egitea, herritarren artean eztabaida sortu duen gaia izan da orain zazpi urte ekin zitzaionetik. Urtero-urtero al-




Erreorte artistiko onena eta adarretan anilla gehien sartzea sarituko dira.

de eta aurkako iritziak entzuten dira herrian. Aurten ere, jai egitarau barruan egongo den txekorketak eman du zeresanik: maia-

tzaren 15ean, Zezenen Errespeturako batzordeak, idatzi bat aurkeztu zuen Udaletxean. Idatzi honen bidez, txekorketaren ingu-

ruan duen jarrera birplanteatzeko eskatu zion Udalarari. Era berean, EHko zinegotzi taldeak txekorketarik ez egiteko eskaera egin zuen Kultura batzordean, eta ezezkoa jaso zuen. Ondoren, erreferenduma egiteko proposamena egin zuten Kultura eta Gobernu batzordean, baina erantzuna hemen ere ezezkoa izan zen. Bestalde, Hazienda batzordean Zezen zaleak taldeari 3 milioiko dirulaguntza ez ematea onartu zen, taldea ez baitago legalki osatuta. Hala ere, Gobernu batzordean dirulaguntza onartu eta Udala antolatzaile lanean aritzea onartu zen.<



Unai Arana.

Mikel Uribealgotok.



Iker Agirre.

David Maestre.



ZAIAZKO
TELEKOMUNIKAZIOAK



Bideoetan, titulorik berrienak!

Telesforo Aranzadi 3, BERGARA.

Tf. 943 76 10 66



Bergarako jaietako buruzko berezia aurkeztuko duen taldea.

GOITB Bergaran ere ikusiko da aurrerantzean

Jardunen ahaleginari esker, behin behineko irtenbidea aurkitu da

Goiena Telebista Bergaran ere ikusi ahal izango da eguakitzetik aurrera. Pentekoste jaiak direla eta, Jardun elkarteak GOITBren seinalea Bergarara ekartzeko ahaleginetan jardun du, eta behin behineko irtenbide bat aurkitu du. Seinalea Aizemenditik helduko da etxeetara, eta UHFko 41. kanalean sintonizatu ahal izango da Goiena Telebista.

Goiena Telebista Bergaran ere ikusi ahal izango da eguakitzetik aurrera. Pentekoste jaiak direla eta, Jardun elkarteak GOITBren seinalea Bergarara ekartzeko ahaleginetan jardun du, eta behin behineko irtenbide bat aurkitu du. Seinalea Aizemenditik helduko da etxeetara, eta

UHFko 41. kanalean sintonizatu ahal izango da Goiena Telebista.

Orain dela hiru bat aste, GOITB sortu zenean, oraingoz Bergaran, Antzuolan, Elgetan eta Oñatin ezin izango zela ikusi aurreratu genizuen; Goiena Telebista Leintz aldean bakarrik ikusi ahal izango zela, hau da, Arrasaten,

Aretxabaletan, Eskoriatzan, Leintz-Gatzagan eta Aramaion. Hala bada, GOITB maiatzaren 26an sortu zen, baina hankamotz jaio zen, Debagoieneko herri guztietara ez zelako zabaldu.

Zergatik herri batzuetan bai eta beste batzuetan ez? Nagusiki, bi arrazoi daude Goiena Telebista Bergaran, Oña-

Iturkintz Berri

INSTALAZIOAK: Iturkintza, Berogintza, Gasa

Jai zoriontsuak!

Amillaga 1 (B Pabilioia) 943 76 28 04 BERGARA

tin, Elgetan eta Antzuolan ez ikusteko: alde batetik, telebista seinalea Arrasate-tik (bertan dago emisio zentru nagusia) herri horietara eramateak Leintz aldera zabaltzeak baino zailtasun tekniko handiagoak izatea, eta, bestetik, bi herri handienek proiektua finantzatzeko diru-partida nahikorik onartu gabe izatea oraindik.

ZAIKAZKOREN LAGUNTZARI ESKER

Jose Angel Mikeo Jarduneko lehendakariak esan digunez, Jardun kezkatuta zegoen GOITB herrira ekartzea atzeratzen ari zelako: "Orain dela sei hilabete aurkeztu genion Udalari proiektua, eta erantzuna atzeratzen ari da; jende asko ari zaigu galdezka GOITB Bergaran zergatik ez den ikusten eta noiz ikusiko den. Horregatik, jaiak direla eta, behin behineko irtenbideren bat egon zitekeen aztertzen ibili gara. Eta lehenago Zaiazkori Bergaran telebista jartzea erraza zela entzuna genionez, berarengana jo genuen".

Egoera horretan, beraz, Jardunek Zaiazko elektronika etxera jo zuen eta Goiena Telebista Bergaran ikusteko ze aukera zeuden planteatu zitzaion Luis Azkondori. Hauxe erantzuna: "Irtenbide probisional bat ez litzateke oso zaila izango. Aizemendin ondo hartzen da seinalea. Hortaz, Aizemenditik etxeetara zabaltzeko lan txikitxo bat egitea besterik ez dago".

Esan eta egin. Aste honetan ibili da Luis Azkondo Aizemendin lanean, eta GOITB Bergarako etxe gehienetara heltzeko bidea egin du. Egia esan, ez da etxe den-denetan ikusiko, baina gehientsuenetara iritsiko da. UHFko 41. kanalean sintonizatu beharko da GOITB telebista aparailuetan. Seinalea Elgetara ere ailegatuko omen da, baina han antenak Aizemendira begira ez dituztenez, mugitu egin beharko litzukete GOITB ikusteko. Antzuolan, berriz, ez da ikusiko.

Jaiak GOITBn

Astegunetan egunero hiru bat ordu emititzen du GOITBk, 20:00etatik 23:00ak arte. Bestalde, eguerdiko 13:30ean albiste aurrerapena ematen da, eta, jarraian, pare bat saio errepikatzen dira. Astebukaeran ere asteko hainbat saio berriz ikusteko aukera izaten da. Emititzen ez den orduetan teletestua egoten da ikusgai. Bergarako jaiak buruzko bi saio bereziok jaien ostean, honako egunetan eskainiko dira. "Bergarako jaiak" berezia, eguaztenean (21:30), eguenean (13:50), eta zapatu eta domekan (14:45). Bestalde, Errekortadoreen Euskadiko Txapelketari buruzkoa eguenean (21:30), eguakitzean (13:50) eta zapatu eta domekan (15:30).

BEHIN BEHINEKO IRTEERA

Orain planteatu dena behin behineko irteera da, Jarduneko lehendakariaren esanetan: "Hori oso garbi laga nahi dugu. Alde batetik, GOITB ez da herri osoan ikusiko, eta ez da itzulerako seinalerik ere izango; hau da, Goiena Telebistaren seinalea Arrasate-tik Bergarara helduko da, baina ez da Bergaratik Arrasatera itzultzerik izango, eta, ondorioz, besteak beste Bergaratik zuzenean sartzeko aukerarik ez dugu izango, oraingoz. Gainera, Bergaran behar den pertsonalaren finantziarioa ere segurtatu barik daukagu, eta Goienako langi-

**Orain planteatu dena
behin behineko irteera
da. Edozein modutan,
UHFko 41. kanalean
sintonizatu beharko da**

leen, boluntarioen eta BERRIGARAKOEN ahaleginari esker eskaini ahal izango da Bergarako informazioa".

BERGARAKO JAIK GOITBn

Pentekoste jaiak izango dute tokia GOITBn. Izan ere, Bergarako jaiak buruzko berezia eskainiko du Goiena Telebistak. Jaietako ekitaldi azpimarragarrienak grabatuko dituzte eta jaien biharamunean ikusi ahal izango dira. Bi programa ikusi ahal izango ditugu Goiena Telebistan: batetik, jaien errepasoa egingo den programa berezia eta, bestetik, errekortadoreen txapelketari buruzkoa.

Lehenengoa, ordu erdi edo hiru ordu laurdeneko saioa izango da, ETBren "Jaiak" programaren tankerakoa: irudi alaiz betea eta estilo freskoz egina. Beraz, GOITBko kamerak Bergaran izango dira jaietan zehar irudiok grabatzen. Aurkezle lanetan sei lagun ariko dira, denak bergarar gazte ezagunak: Eider Arantzabal, Ane Miren Zabala, Igor Larrañaga, Aitzol Mujika, Oihan Vega eta Anartz Agirre. Jaietako ekitaldi guztiak ez dituzte grabatuko, baina bai interesgarri edo azpimarragarrienak: Bitoriatxoren jaietsiera, sukaldaritza lehiaketa, Gorkako auto igoera, errekortadoreen txapelketa, Euskadiko dantza sultoko txapelketa, jolas parkea, herri bazkaria eta baltsa jaietsiera. Horretaz gain, txoznetako, kaleko eta barraketako giroa eta gaueko musika gunetako giroa ere hartuko dira.

Bestalde, zapatu arratsaldeko errekortadoreen txapelketari buruzko saioa ere eskainiko da GOITBn. Ekitaldi hau oso osorik hartuko da, eta grabatu bezala eskainiko da. Ibon Larrañaga eta Inigo Almortza arituko dira irudiak komentatzen. Beraz, GOITBko kamerak eta aurkezleak jaietan zehar hainbatean ikusi ahal izango ditugu kalean.

Esan bezala, bi saiook jaien biharamunean ikusi ahal izango ditugu.<



ONGI PASA
JAIK!



Luzen
Opari Denda
Bergara

Barrenkalea 27


Boluko irteeran 70 kotxe inguru izango dira Gorlako kotxe igoera ikusgarria

Zapatuan, ekainaren 10ean, Gorlako kotxe igoeraren X. edizioa jokatuko da. Gorlako proba Euskadiko Mendiko Txapelketarako puntuagarria izango da eta, aldi berean, Txapeldunen Zita txapelketan ari diren barketak ere etorriko dira.

Gorlan.
Zapatuan
16:00etatik
aurrera

Gorlako igoera Euskadiko Txapelketa-ko seigarren proba izango da, San Kosme, Arrate, Iturreta, Jaizkibel eta Orduñako lasterketak jokatu baitira aurretik. Aitor Zabaletak bere nagusitasuna erakutsi du orain arte izandako probetan, eta bera izango dugu faborito nagusia iaz Gorlan lortutako garaipena errepikatzeko. Zabaletak bere Lola BMWarekin korrituko du, eta, berarekin batera, Javier Breña (Citroen Saxo) eta German Hernandez (Renault Clio Williams) bergararrak izango dira irteeran. Zilindradaren arabera bost maila bereiztuko dira.

Aurreneko aldiz Gorlako igoera Pazkuetan jokatuko da. Juan Mari Aranzabal Bergara Racingeko kidearen arabera, "zapatuan egitea ideia ona iruditu zitzaigun, egun horretan kanpoko jende asko datorrelako. Ikusle- en erantzuna ona bada, hemendik aurrera Pazkuetan egingo dugu. Badakigu Bergaran egiten ari diren obrek nahiko zaila dela horrelako proba bat antolatzea, baina trafikoan ahalik eta kalte gutxien sortuko da".



Aitor Zabaleta izango da faborito nagusia.

ARTXIBOA


Aurrekoetan bi eguez izaten ziren entrenamenduak eta manga ofizialak, eta aurten, berriz, zapatuan egingo da dena. Goizean zehar kotxeen egiaztatzea egingo da San Lorentzon, Murillo garajeetan eta

15:00etan, igoeran parte hartuko duten kotxeen (70 bat) aurkezpena egingo da Bolun. Ordu bete berandua go entrenamendu saioak hasiko dira, eta jarraian bi manga ofizialak jokatuko dira. Lehen manga 17:30 al-

dera hasiko da, eta bigarrenari 19:00etan emango zaio hasiera. Entrenamenduen eta bi mangan arteko atsendaldian, iaz bezala, Asturriasetik etorritako sei kart arituko dira Gorlan, ikusleak entretenitu nahirik. Joan zen urteko edizioan kartek sekulako ikusmina sortu zuten Gorlan bildutako ikusle- en artean. Antolatzaileen arabera, iaz 2.000 ikusle izan ziren Gorlan, eta, aurten, igoerak jaiekin bat egiten duela kontuan izanik, marka hori hobetzeko asmoa dute antolatzaileek.

Aurtengo nobedade nagusienetako bat Txapeldunen Zitako barketen parte- hartzea izango da. Estatu mailan zortzi proba dira, eta Bergarako bigarrena izango da. Segurtasunagatik Espainiako Txapelketan barketak erabiltzen ez direnez, Txapeldunen Zita izeneko zirkuitua jarri da martxan eta Bergaran 25 barketa inguru izango dira.

Zapatuko lasterketa ikusteko sarrerak 1.000 pezetan salduko dira. Karrera bukatu ondoren, sari bana- keta ekitaldia egingo da Jam aretoan.<



PINTURAS BERGARA S.L.

- INDUSTRIARAKO PINTURAK
- APAINKETARAKO PINTURAK
- GARBIKETAK
- ERROTULOAK

Aranerreka 32, behea BERGARA. Telefonoa: 943 76 10 65, faxa: 943 76 11 40



GIDE COLOR

Milaka kolore egiten ditugu momentuan

Ondo pasau jaixetan!

Egurra baesteko tratamendua

Burdina herdoiletik babesteko

Paper pointatuak, zenefak pintatzeko txantiloiak

Moketa eta sintasola

Zokaloak eta ertzeoak


Nobedadeak oholza flotagarrietan



Luis, zuen zerbitzura.

Ordutegia: 08:00-13:00 eta 14:30-19:15. Zapatuetan: 09:30-13:00

Tf. 943 76 52 42. Faxa 943 76 56 17. Amillaga 5 (Renault ondoan)



- Garajeko atek
- Burdinazko pertsianak
- Automatismoak
- Urrutiko agente tresnak eta hauen mota guztietako kopiak
- Oinezkoen ateentzako sistema automatikoak
- Konponketak

Kataide industrialdea 18 • Tf.: 943 79 10 20 • Faxa: 943 79 08 17
110 Postakutxa • ARRASATE

JUBAR®
ATEAK, S.L.



BERGARAKO UDALA

ZURE ZERBITZURA

*Ondo pasa
Pentekoste jaiak!*

UDALETXEA

Bulego Orokorrak	943 77 91 00
Alkatetza	943 77 91 01
Artxiboa	943 77 91 32
Auzoak eta mendiak	943 77 91 41
Euskara zerbitzua	943 77 91 66
Gizarte ongizatea, osasuna, enplegua eta kontsumoa	943 77 91 65
Hirigintza, obrak eta ingurugiroa	943 77 91 68
Idazkaritza	943 77 91 00
Kirolak	943 77 91 67
Kontuhartzailtza	943 77 91 64
Turismo bulegoa	943 77 91 28
Udaltzaingoa	943 77 91 06

Faxa: 943 77 91 63

e-posta: bergara@udal.gipuzkoa.net

OBRA ETA ZERBITZUAK

943 77 91 52

Faxa: 943 77 91 20

KULTUR ETXEA

Bideo zerbitzua	943 77 91 58
Gazte Informazio Gunea	943 77 91 57
Liburutegi nagusia	943 77 91 62
Ondare artistikoa	943 77 91 61

Faxa: 943 77 91 69

e-posta: berg.liburu@udal.gipuzkoa.net

BESTE ZERBITZUAK

Eguneko zentrua (3. adinekoentzat)	943 76 21 40
Igerilekuak	943 76 20 51
Kiroldegia	943 76 56 41
Liburutegia (Osintxu)	943 76 23 76
Liburutegia (Angiozar)	943 76 16 19
Ludoteka-Udalekuak	943 76 23 76
Mizpirualde, zaharren egoitza	943 76 13 68
Udal euskaltegia	943 76 44 53

Iker Xabier Markuartu, toreroa:

"Toreo polita egitea gustatzen zait, serioa, dotorea"

Ibargaraiko zezen plazan.
Domekan 18:00etan.

Zezenzaleak taldeak antolatutako txekorketa izango da domekan. Iker Markuartu audioarrak bertan hartuko du parte, Antonio Torret Kordobarrarekin batera. "El Torero de Llodio" k, txekorketa hau bere ibilbiderako erabakigarria dela dio. Esperientzia laburra duen arren, bere torearik onena erakutsiko du.

Noiz hartu zenuen toreatzaile izateko erabakia?

E. Txikitan, hiru urte nituela, kapote txiki batekin ibiltzen nintzen etxeko pasiloan. Serio, 1997. urtean hasi nintzen. Hurbiltasunagatik, Bilboko Eskola Taurinora joateko asmoa nuen, baina ordurako desagertua zegoen. Hala ere, hainbat banderilero mutiko bati erakusten aritzen ziren Bilboko zezen plazan, eta bertara joan nintzen entrenatzera.

G. Horren ondotik zein izan da zure ibilbidea?

E. 1997. urtean jarri nintzen lehenengo aldiz txekor baten aurrean. Nire herrian, Laudion izan zen. Abuztuan txekorketa bat egiteko ohitura dago, eta bertan hartu nuen parte. Ordura arte inoiz txekor baten aurrean jarri gabe nengo eta toreatu gabea nintzen. Txekorketa hartan, bi txekor hil nituen. Nire debuta, pasa den abuztuan izan zen, Laudion.

G. Nola jaso zenuen Bergarako txekorketarako gonbitea?



Iker Markuartu Bergaran izango dugu domekan.

E. Entzuna nuen Bergaran Pazkuetan txekorketa egiten zela. Hori dela eta, neuk deitzeko asmoa neukan, bertan parte hartzeko interesa bainuen. Horretan nintzela, Juan Luis Bikuñak

hots egin zidan Bergarako Txekorketan parte hartzeko. Ilusio handia egin zidan.

G. Pozik zaude, beraz, etortzeko.

E. Oso pozik. Denboraldi honetan, txekorketa ba-

ten parte hartu dut, Orduñan, eta ondo joan zitzaidan. Laudion jendeak asko espero du nitaz, eta Bergarako txekorketan asko dut jokoan. Gainera, apoderatu bat lortu dut orain dela oso gutxi, eta badakit jende asko hurbilduko dela Bergarara toreatzen ikustera. Zezenen munduan izena egiten lagunduko dit.

G. Nola definituko zen nuke zeure burua toreatzeko orduan?

E. Lagunek "torero artista" bat naizela esaten didate, baina ez zait gehiegi gustatzen. Toreo polita egitea gustatzen zait, lasaia, elegantea; horretan saiatzen naiz, behintzat, nahiz eta beti ez den lortzen norberak nahi duena.

G. Ibarretxe lehendakariaren senitartekoa omen zara.

E. Nire aitaren lehengusu bigarrena da. Laudion toreatu nuenean etorri zen ikustera. Dena den, ez dut harremanik berarekin, behin baino ez dut berarekin hitz egin.<

Gracian

Usaindegia - Mertzeria

Jai zoriontsuak!!

Bidekurutzeta 6 Tf. 943 76 10 25

ekainaren 9an, eguakitza,

Baron Rojo, Tierra de nadie eta Muro

ekainaren 10ean, zapatuan,

jai izugarria

**dj tito, dj ima,
dj carlos phazer,
dj kike pravda,
downsister's eta
dj orlando**



DANCE PARTY

jaietan ere menuak!



Santalaitz 5. 943 76 35 81

TESTAMENT



ekainaren 15ean,
eguna,

Testament



50 urte baino gehiagoko
esperientzia
eta profesionaltasuna
egunez egun frogatuak.

Iturgintza, gas natural, propano
eta butano eta berogailu
instalakuntzak.

Sukalde eta bainu berrizketak.
Bainuko altzariak.

**Jai zoriontsuak izan
ditzazuela!**

ITURGINTZA-BEROGAILUAK-GASA
BAINURAKO ALTZARIAK

**Larrañaga
Eguren, B. M.**

Juan XXIII
Tf. eta Faxe 943 76 11 88
20.570 BERGARA

Rock taupadak

Urtero bezala, Bideberri rock gune bilakatuko da gauetan. Baina, aurtan, plazan ere kontzertu bat izango da zapatu gauean. Guztira, hamalau musika talde arituko dira, horietatik lau Bergarakoak. Kanpokoan artean, aipatzekoak dira "La Nube", "Bide ertzean" edo "Safety pins".

Bideberri eta S. Martin pl.
Eguakitz,
zapatu eta
astelehenean.

EGUAKITZA 9

NIÑOS MUTANTES

Nani Castañeda(bateria), Migue Haro (bajua eta koroak) eta Juan Alberto Martinez (gitarra eta ahotsa) hirukoteak osatu zuen Niños Mutantes, Granadako taldea, duela sei urte, 1994an. Duela bi urte, hala ere, laugarren kide bat batu zitzairen, Manolo Requena gitarra jolea.

Talde ugariaren eragina nabari da beraien musikan, besteak beste, Beatles, Los Brincos, David Bowie, The Zombies eta Neil

Young bezalakoena. Horrenbeste eragin izan arren, nortasun propioa garatu dute, eta ez da zeregin erraza talde honek egiten duen musika definitzea. Gitarra nagusi den pop alternatiboa egiten dutela esan daiteke.

Hasiera batean, maketak argitaratzeari ekin zioten, eta 95 eta 96 urteetan maketa onenen artean zeuden talde honenak. Pixkanaka-pixkanaka, beraien musika ezagutzariaz joan ziren hainbat jaialditan, baita sari ugari jaso ere.

1998. urtean lehendabiziko albuma kaleratu zuten: "Mano, parque, paseo". Aur-




Niños mutantes

ten kaleratuko dute beraien bigarren diskoa. Soinu berriak garatuz lanean dabilzaten arren, beraien nortasunari eusten diote disko berri honetan ere, beraien tokia pop alternatibo gitarrero honetan. Gitarra funtsezko elementua da talde honen abesti guztietan.

LA NUBE

1995. urtean sortu zen talde hau, eta honako kideek osatzen dute: Cristina Pablo (ahotsa eta gitarra), Silvia Fayanes (gitarra), Nines Carceles (bajua eta ahotsak) eta Pepe Benito (bateria).

Hainbat maketa eta CD txiki kaleratu ondoren, iaz argitaratu zuten beraien lehendabiziko diskoa: "90-60-90". Disko hau aurkezteko estatu espainiar osoan zehar ibili dira. Beraien lehen CD hau heldutasun eta lan ugariaren emaitza dela esan daiteke. Cristina abeslariaren ahotsak emozio bere-



Chucho

1995ean, "Surfin` Bichos" rock talde ezaguna desagertu eta urtebetera, Fernando Alfaro talde honetako kideak musikagintzari berrekitea erabaki zuen. Horrela sortu zuen "Chucho", Juan Carlos Rodriguez eta Javier Fernandezekin batera. 1996. urtean "Limbo Starr" CD txikia kaleratu zuten; hurrengo urtean, "78" CDa, eta duela bi urte, "Tejido de felicidad". Beraien azken lan honetako abestiek taldearen inspirazio, talentu eta egoera paregabea islatzen dute. Bertan biltzen diren abestiak tecno-pop zein punk-rock

bezala definitu daitezke. Grazia eta ingenio paregabea erakusten duen lana da, eta maitasuna, mina, limitean dauden pertsonaiak... bihurtzen dituzte protagonista. Bere momentu onenean dago "Chucho", eta momentu honen arrazoia ezagutzeko aukera izango dugu eguakitz gauean Bideberri.

ETXEPARE-BILINTX



LIBURUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai 12 ☎ 943 76 40 50 BERGARA



La Nube

EGUAKITZA 9 (jarraipena)

zia transmititzen du. Disko honek La Nuberen jarrera erakusten du, freskotasan, zintotasun eta konplexurik ezaren isla baita.

FLY SHIT

Setien (ahotsa), Unai (gitarra), Elorza (gitarra) eta Eloi (bateria) bergarar gazteek osatzen duten taldea dugu Fly Shit. Duela lau bat urte hasi zen lagun taldea entseiatzen. Unairen garajejan hasiera batean, eta Seminarioko lokalean geroago. Taldekideek esan digutenez, hardcore punk-rock estiloko musika jorratzen dute. Gustuei dagokienez, denetik gustatzen zaie: RK4, Poison Idea, Dut, Anari...

ZAPATUA 10



Fly Shit

FROMHEADTOTOE

Azkenengo Bilbo Hiria lehiaketa irabazi zuen Fromheadtotoe taldeak. 1995. urtean osatu zuten taldea Rafael Molina (gitarra), Raquel Pascual (ahotsa eta gitarra), Daniel Foz (baxua) eta Sebastian Fontecillak.

Ordutik hona, Descendents edo Echobelly bezalako nazioarteko taldeen teloneroak izan dira. Hainbat maxiCD argitaratu dituzte: Insight, Bomb eta Divine. Bere lehen-dabiziko albuma "I'm The Fuel" izan da.


Rakel abeslariak ahots berezia dauka, eta baita aktuatzeko era berezia ere: eskentatokia sekulako saltoak egiten ditu, lurrean zehar arrastaka ibiltzen da... Baten batzuek Dover taldearekin parekatzen badituzte ere, nortasun eta musika ezberdineko bi talde dira. Ikusiko beharreko ikuskizuna.

HELL BRAINS

1996. urtean sortu zen Bartzelonako talde hau, eta hiru maketa grabatu ostean, "The best of the american food" euren lehendabi-

Bide ertzean

Aski ezaguna dugu dagoeneko talde euskaldun hau. Duela bizpahiru urte, Deabruak Teilatueta taldea desagertu ostean, bertako kide ziren Imanol eta Joni anaiek osatu zuten Bide Ertzean, poesiarekin uztarturiko lan bati bidea emateko asmoz. Gaztelupeko Hotsak zigiluarekin "Dana lanbrotute ikustot" muntaia estrenatu zuten Deabruak Teilatueta taldeko kide izandako hauek, Koldo Izagirre, Sarriolandia eta Jose Luis Otamendiren poesiekin, besteak beste. Proiektu hartatik ateratzen Bide Ertzean taldea, Ubeda anaiezen gain, Fran Iturbe bergararra (gitarra), Karlos Aranzegi (bateria) eta Labriten (ahotsak) ekarpenarekin. Ondoren, duela urtebete inguru, euren lehen disko luzea argitaratu zuten: "Zure minari". Sortu zeneko ildo beretik jarraitzen du taldeak, eta, horrela, duela urte batzuk Otamendik eta beste zenbait poetak idatzitako poema musikatuak entzun ahal izango ditugu zapatu gauean herriko plazan.



Fromheadtotoe

ziko diskoa kaleratu zuten iaz. Safety Pinsideko Kike Turmixek proposatu zieten Sello bere disketxearekin disko hau grabatu eta kaleratzea. "Gure kontzertuek jarrerak islatzen dituzte, gogorak dira. Gure musika ez da 'pijoendako', 69ko Ford Mustang bat eduki eta sugarrez pintatzea gustuko duen jendearendako baizik".

"Gure abestietan nabari da garapena



**Kosmetika.
Oparigaiak.
Eder gela.
Bio solariuma.**

*Jai zoriontsuak
izan ditzazuela!*

Igaro
G

Usaindegia

IGARO USAINDEGIA, BARRENKALEA 35. TF: 943 76 17 27



Niños mutantes

izan dugula, baina funtsean ez da ezertxo ere aldatu: ezer ez da aldez aurretik pentsatua, bat batekotasuna da gure musikaren oinarria. Rock'n rolla depuratu nahi dugu, bere alderdi primitibo eta basatia defendatzen dugu. Hasiara batean garajeko musikaren eragina genuen arren, denborarekin rock'n roll tipikora hurbildu gara".

Taldea lau lagune osatzen dute: Billy Maracas (ahotsa), Tommy Estruendo(gitarra), Pat (gitarra) eta J-Diablo (bajua).

GLITTER SOULS

Iruñeko talde honek iaz argitaratu zuen bere bigarren diskoa: "As Cool As Damned". 14 abestiz osatutako diskoa da; horietatik gehienetan nabari dira valsean ohikoak diren erritmoak, eta blues kutsudunak ere bai. Kritikak Bichos taldearekin konparatu izan dituzte behin baino gehiagotan. Roberto J. Meyer da kantaria, gitarra jolea, eta baita hitzez arduratzen dena ere; bera da taldearen gidaria, nolabait esatearren.

COOL PANIC

Duela urtebete hasi ziren bergarar hauek elkartu eta entseiatzen, piszinetako lokaletan. Talde honek rocka jotzen du, eta "MC5", "Sonics", "Flamin'groovies" eta "El inquilino comunista" bezalako taldeak dituzte gustuko. Honako boskote honek osatzen du taldea: Alex Muela (gitarra eta ahotsa), Itziar Iturbe (ahotsa), Ruben Gauna (bateria), Mikel Azkargorta (bajua) eta Aitor Pedrejon (gitarra). Aukera ederra izango dute, bada, euren herriko jaietan debutatzeko.

ASTELEHENA 12

X-AT

Orain dela hiru urte inguru sortu zen Bergarako talde hau. Labegarietako eskola zahar-rean elkartzen dira ordutik entseiatzeko, astean hiru bat aldiz. Rock gogorra da gehien gustatzen zaiena, eta horixe da bereaiek egiten duten musika ere. Anestesia, Korn, Hamlet eta Sepultura bezalako taldeak dituzte gogokoak. Laukote honek osatzen du taldea: Aitor (ahotsa), Iker (baxua), Dubi (bateria) eta Manu (gitarra).

ZARTATEKO

Duela urtebete inguru debutatu zuen bergarar talde honek Antzuolako gaztetxean, eta iazko Pazkuetan Bideberrin izan zuten jendaurrean jotzeko bigarren aukera. Talde gaztea da, beraz, bai talde bezala daramaten denborari dagokionean, baina baita taldeki-deen adinari dagokionean ere, 17-18 urte inguru besterik ez baitituzte. Rock bizia jotzen dute eta honako hauek osatzen dute taldea: Fubok (baxua), Uribek (ahotsa), Bolik (gitarra), Elexpuk (gitarra) eta Kitok (bateria). Kortatu eta Anestesia bezalako taldeak dituzte gustuko.



X-at



Zartateko

Safety pins

Safety Pins duela hiruzpalau urte sortu zen Bilbon. Partaideetako batzuk "Pop crash colapso" taldean arituak ziren, eta azken hau desagertu ondoren osatu zuten Safety Pins. Gauza ugari esan ditu kritikak talde bizkaitar honen inguruan, baina

guk honako hau jaso dugu, bere estiloa nahiko argi definitzen duen hau: "euren musika entzuten dugunean, konturatzen gara orain arte entzun duguna ez dela benetako punka, hau dela benetako punka". Euren lehendabiziko diskoak, "Steel Knives & Razorblades"ek, oso harrera ona izan zuten, eta, harrezkero, beste hainbat disko argitaratu ditu. Datorren astelehen gauean benetako punka entzuteko aukera izango dute musika gogorra gustuko duten guztiek, Bideberrin.



Aprobetxa itzazu
udako
eskaintzak

RENTERI
TINDATEGIA



Ikerleku 4, behea (Novedadeseko kantoia) 943 76 19 68

Zure konfidantzazko tindategia. Gure esperientzia eta profesionaltasun guztia zure zerbitzura.

Nueva Alaska eta Luhartz Camp dantzaldiez gozatzeko bi talde oso ezberdin

Musika eta dantza mota guztiak dute euren lekua jaietan, baita camp deritzonak ere. Aurten, bi camp talderen emanaldiak egongo dira: Nueva Alaska, San Martin plazan, eta Luhartz, Espoioian. Camp taldeak biak, baina ezberdinak, hala ere: Nueva Alaska Madrildik datorkigu, eta Luhartz Durangotik.

Nueva Alaska taldea Madrilen sortu zen 1985. urtean. Taldearen bultzatzailea, Angel Lasheras izan zen. Hamar urtez beste talde batzuetan aritu ostean, talde propioa sortzea pentsatu zuen Lasheras. Taldearen koreografiak Paola Luchena kantaria arduratzen da, eta oso ikuskizun biziak lantzen dituzte. Gaur egun, hamabi partaide ditu Nueva Alaskak, musikari, abeslari, dantzari eta teknikoaren artean. Helburua, camp taldeen kontzeptuaz harantzago joatea da, eta musikaz gain, ikuskizuna ere eskaintzea. Horretarako, orotariko musika jotzen dute, eta emanaldi bakoitzean 26 jantzi ezberdin erakusten dituzte.

BIZKAITIK LUHARTZ

Lemoa, Gernika eta Durangoko musikariek osatutako taldea dugu Luhartz. 1982. urtean sortu zen. Garai hartan bi partaide zituen, eta erromeria txiki batzuetan jotzen zuen arren, ezkontzetako taldea zen, batez ere.



Nueva Alaska (goian) Madriletik dator eta Luhartz Bizkaitik.

Hala ere, Jabi Intxausti eta Rafa Iriondo partaideen betiko asmoa erromerietan jotzea izanik, beste kide bat sartuko zen taldera 1988. urtean, Txarli Igartua. Honen ondoren, 1992. urtean, Aitor Gallastegi sartu zen, eta Luhartzek bere lehenengo diskoa atera zuen: "Hemen gaituzue".

Luhartzen errepertorioa euskal musikaz eta euskaratuak bertsioekin dago osatuta, eta euren helburu nagusia, dantzaldira hurbiltzen diren guztiak dantzan egitea da.

BESTELAKO DANTZALDIAK

Camp dantzaldiez gain, bestelako erromeriak ere izango dira. Eguakitzean, Joselu anaiak izango dira San Martin plazan. Zapatuan, Drindots, Espoioian egongo da, eta martitzenean, jaietako azken egunean, Gozategi San Martin plazan. Talde ezagunak hirurak, euskal kanta zein kanpoko bertsio euskaratuak eginez, jendea dantzan jartzen dutenak, gainera.<

S. Martin pl.
Domekan
23:00etan.
Espoioia.
Astelehenean
23:00etan.

NINIKA

*Pentekoste jai zoriontsuak
izan ditzazuela denok!*

LOREAK MUNDU
OSOAN



INTERFLORA

loradenda

*Jaiotze-ospakizunak, ezkontzetako eliza
eta jatetxea... dena apainduko dizugu!*

Ramon Maria Lili 8. Tf. 943 76 10 01



ARDATZA

Brikolaketa

Masterreka 4, behea Tf. 943 76 18 93

*Egurrezko materiala
eskuz pintatzen dugu.
Eskulanetarako gaiak.
ONDO PASAU JAIXAK!*



**AZKARATE
AROTEGIA**

Arotzak gara.



Ortzadar

Kortsetegia, mihisedenda, pijamak eta osagarriak



DIM

BANATZAILEA




**Ibargarai 8.
943 76 54 73**

ALZAS *elektragintza*

Korronte alferno eta
zuzeneko makina
elektrikoen eta abiada
haundiko induzituen
konponketa eta
bobinaketa

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu



Antigua auzoa 3, 20577 ANTZUOLA • Telefonoa: 943 76 64 14 • Faxe: 943 76 62 99



OLABE

okindegia - gozotegia



*Lantokia:
Amillaga kalea
Tf. 943 76 72 28*

*Matxiategi 4.
Tf. 943 76 57 99*

Bergara

*Zurradero 2.
Tf. 943 76 01 26*

Ondo pasau danok
jaixetan!



Trapu Zaharra eta Hankagorri Bonberoak eta eroak ugari herriko kaleetan zehar

S. Martin pl.
Zapatuan
18:00etan eta
domekan
19:30ean.

Antzerkiak ere bere lekua izango du Pazkuetan. Bi euskal antzerki talde izango ditugu gure artean. Zapatu arratsaldean, Hankagorri taldea "Bonberoak" bere azken antzezlarekin, eta domeka arratsaldean, Trapu Zaharra taldearekin "Eroak" antzezlana gozatzeko aukera izango dugu kalez kale.

Trapu Zaharra taldeak Bergarako kaleak animatuko dizkigu jaietako domeka arratsaldean, 19:30etik aurrera, hain justu, "Eroak" bere antzezlarekin. Antzezlan hau San Martin plazan hasiko da eta kalez-kale antzezteko pentsatua dago. Protagonistak bi pertsona mutu dira, baina ez horregatik errealitatetik at daudenak, ez baitute hitz egiten, baina bai sentitu. Trapu Zaharrak taldeko kideek esaten dutenez, "ume txikien begiradarekin begiratzen dute mundua, imajina ezinezko egoerak sortuz, eta egoera honek, hain zuzen, jendearekin erlazionatzeko era sentikor bat sortarazten du". Jendearengana heltzea du helburu

Talde hau 1982. urtean sortu zen, eta ordutik hona bederatzi muntaia egin dituzte; horietatik bost kaleko antzezlanak, eta beste laurak, berriz, barrukoak. Era guztietako lanak egin dituzte, beraz, baina beti ere, umore kritikoko kutsu batekin.



Trapu Zaharra taldearen "Eroak" antzezlaren irudi bat.

HANKAGORRI TALDEAREN "BONBEROAK"

Arratsalde paregabea pasatu ahal izango dute haurrek, zapatuan 18:00etatik aurrera, Hankagorri taldeak "Bonberoak" antzezlana aurkeztuko baitu San Martin plazan. Taldeko partaideek adierazi digutenez, bi ezauzgarri nagusi ditu antzezla-

nak: ikusgarritasuna eta partehartzea. Izan ere, Hankagorrikoek hauren partehartzea bilatzen dute beraien saioetan. Taldekideek diotenez, "herriko haur guztiak bonbero bihurtuko ditugu arratsalde batez". Ordu eta erdiko emanaldi honen ostean, ur-festa izango da bertaraten diren haurrentzat.

Euskaraz, antzerkia eta jolasa uztartzea da antzezlan honekin bilatzen dutena.

1995. urtean sortu zenetik, Egunkariarekin lankidetzan egin ditu antzezlan guztiak. Ordutik hona, behin baino gehiagotan egon dira gure herrian, "Piratak" eta "Mukikrossa" bezalako saioekin.<

ERLOJUDENDA

Ondo pasau jaixetan!!

AINH



A

Boni Laskurain 2 ☎ 943 76 47 40

BITXITEGIA



Ibargarai 11-13 BERGARA
Telefonoa eta faxa: 943 76 70 58



ondo pasau danok jaixetan!



SUKALDE ETA BAINUKO ALTZARIAK

BILBO garraioak

Bergara-Bilbo
eguneroko
zerbitzua

Partikularrendako
eta
industriendako



Leizariako
San Lorentzo 19, 3C.
Telefona:
943 76 35 74. Mugikorra:
609 479 443

Ondo pasau danok jaixetan!



LAGUN

ARROZTEGIA

Mekolalde 57. 20570 BERGARA
☎ 943 76 08 10 (Tailerrekoa)
☎ 943 77 02 43 (Etxekoa)


Ateak

Leihoak

Sukaldeko armairuak

Horma armairuak

Era guztietako arotz lanak



Idoia Elorza eta Mireia Lizarralde, Pegatina lehiaketako irabazliak

"Euskeriarekin konpromisua bihar da"

Idoia Elorzak eta Mireia Lizarraldek irabazi dabe Jardunek jaixetarako antolatutako pegatina lehiaketa. "Galtziak min? Ba...eiñ!" euren asmatutako leloa koadrilen blusak apaintzeko erabiliko da Pazkuetan. Esaldi horrekin euskararen aldeko konpromisua benetakoa izatea aldarrikatu nahi izan dabe.

Zela bururatu jatzuen pegatina lehiaketako esaldi irabazlia?

E. Historiako klasian gendela, Ipintza institutuan. Klase nahiko aspergarriza zen, nazismoari buruzkoa, eta, apuntiak hartu beharriari lehiaketarako esaldixak asmatzen hasi giñan bixok. Lehiaketara sei bat-edo aurkeztu giñuzen, eta irabaztia sorpresa izan da.

G. Zer adierazi nahi izan dozue esaldi horrekin?

E. Euskararen aldeko kamisetak eta pinak eroatea ondo dagoela, baina, horrez aparte, euskaraz egin behar dela. Esan bakarrik ez, euskaraz berba egin behar dogula euskara pikutara ez joateko. Azken batian, hizkuntzaren aldeko konpromisua benetakua izatea nahiko giñuke.

G. Zer egingo dozue lehiaketako sariarekin?

E. Jaixetako astelehenean elkarrekin poteotxo bat egin, eta ondoren ondo afaldu, *mano-mano*. Eta juergatxo bat bota...

G. Zein egunetan pasatzen dozue ondoen?

E. Astelehena asko gustatzen jaku, Bergarako jen-



Idoia Elorzak eta Mireia Lizarraldek euskararen aldeko konpromisua benetakoa izatea nahi dabe.

dia bakarrik egoten dalako. Giro polita egoten da. Aste-bukaeran jende gehixegi ibiltzen da.

G. Jaixak, egunez ala gabez?

E. Gabez ibiltzen gara gehixenbat. Lagatzen doskuen ordurarte, seirak aldeira etxera joan beharra dau-

kagu eta. Egunez, lo egin bihar... Bueltatxoren bat be emoten dogu goizetan, aurrere gabian egindakoak kontatzeko...

G. Jaixetan, zer, ligatzen da?

E. Ez asko, esaten dana baino gutxiago. Euskaldunok nahiko itxixak ei gara

eta horregatik izango da... Beste leku batzutan jendia irekixagoa da hemen baiña baiña bertako giroa ez da beste iñon egoten.

G. Txoznak ala taberne-tako girua?

E. Bixak, tarteka. Onera, leku guztietako giruan ibiltzea.

G. Eta rock ala dantzaldixak?

E. Ez gara oso rockzaliak. Baiña dantzaldixetara ez dira gure edadeko mutilak joaten. Ez dira dantza eske etortzen, lotsatu egitten dira...

G. Blusarik erabiltzen dozue?

E. Bai, 16 bat neska gara koadrilan eta blusa berrixa estreiñauko dogu, horixa, berdia eta urdin kolorekoa. Ez da oso deigarrixa, siloietan erabiltzen den tapizaren antzekoa da ohiala.

G. Jaixetako ekitaldirik gustokuena?

E. Zezen plazako jolasak eta kaleko girua.

G. Eta barraketan ibiltzen zate?

E. Gutxi. Lehen gehixago joaten giñan. *Rodeo* ize nekua da gehixen gustatzen jakuna.<

ORTO + LAGUN

O R T O P E D I A

Ondo ibili nahi duzu?

Zu laguntzeko gaude, etorri guregana.

Kontzeziño 2 • ARRASATE • Tf.: 943 79 89 34

Baltsa jaitsiera erreka garbi baten alde Zazpi urte eta gero berreskuratu du Ingurumen batzordeak

**Algodonerako
zubitik
Bideberrira.**
Martitzenean
19:00etan.


Baltsa jaitsiera egingo da aspaldiko partez. Orain urte batzuk Eguzki talde ekologistak antolatzen zuen jaitsiera. Aurten, Udaleko Ingurumen batzordeak hartu du haren lekukoa. Baltsa norberak egin beharko du, eta ibilbidea ohikoa izango da: Algodonerako zubitik Bideberriraino. Sariak ere banatuko dira.

Zenbait urtetako etenaren ondoren, aurten baltsa jaitsiera berreskuratuko du Udaleko Ingurumen batzordeak. Lehenago, Eguzki talde ekologistak antolatzen zuen baltsa jaitsiera Pentekoste jaieran, eta aurten, Ingurumen batzordeak hartu dio lekukoa.

Baltsa jaitsierak hainbat helburu ditu. Batetik, Deba ibaiaren saneamendu integratetik hain gertu gauden honetan, ibai garbi eta bizi bat herriaren erditik pasatzea sekulako ondasuna eta pribilejioa dela aldarrikatzea; izan ere, Deba ibaiak bere bizitasun naturala berreskuratzea, hein handi batean, administrazioaren esku dago, baina baita herritarrenean ere. Bestetik, baltsa jaitsieren bigarren helburua ondo pasatzea da, eta jaietako egitaraua aldarrikapen eta partaidetzarekin osatzea.

NORBERAREN BALSAK

Baltsa, norberak egin behar du. Dena den, ez ei da oso




1993. urtean egin zen azkeneko baltsa jaitsiera. Orduan, Eguzki talde ekologistak antolatzen zuen.



zaila egitea, antolatzaileen esanetan. Nahikoa da bi bi doi edo kamioi baten bi kamara ur gainean mantendu ahal izateko. Gainerakoa, norberaren imaginazio eta lanerako trebeziaren araberrakoa da. Dagoeneko, seiren bat taldek eman dute izena, lau eta bi lagunek osatutakoak. Hala ere, talde gehiagok hartuko du parte seguruenik egunean bertan, lehenagoko urteetako esperientziaren arabera, talde batzuek izena eman ez arren, parte hartzen baitzuten.

Bost urtean izan genituen baltsa jaitsierak, azkena 1993an, eta orduan hamar bat taldek hartu ohi zuen parte.

Ibilbidea ordukoa izango da, Algodonerako zubitik hasi eta Bideberri pareiraino. Sariak ere egongo dira, eta ez nolanhikoak, gainera: Bideberrira heltzen den lehenengo taldearentzat, 20.000 pezeta; baltsa originalenari, beste 20.000, eta gainerako partehartzaileei, 5.000.<



OGIZUN

koop. elk.
okindegia

San Pedro 21
BERGARA
943 76 20 49

Zubillaga z/g
OÑATI
943 78 24 13

BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA

Udako ikastaroak • Barnetegiak



Euskararako prest!

Eskaintza

EUSKALDUNTZE maila guztiak,
ALFABETATZE eta EGA.

Erritmoak

Egunean 5 ordu, goizez.

16 urtetik gorakoentzat.

Bulego ordutegia

Goizez: 09:00-13:00 •
Arratsaldez: 15:00-19:00

Ikastaroaren iraupena


Ekainaren 26tik uztailaren
21era.

Matrikulatzeko epea

Ekainaren 7tik 22ra.

Barnetegia

Uztailaren 1etik 15era
ZERAINen.



**BERGARAKO
UDAL EUSKALTEGIA**

Zabalotegi, 13 • BERGARA
Tel.: 943 76 44 53

berg.eusk@udal.gipuzkoa.net
ber.euskudal@euskalnet.net




ALDIBI AUTOAK, S.A.



Nissan Almera berria

Ibilbideaz goza ezazu



Zigarrola kalea 1
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 20 02
Faxa: 943 79 65 65
e-maila:
aldibi@nortekar.com

Olaso kalea, 23
20870 ELGOIBAR
Tel.: 943 74 20 37
Faxa: 943 75 35 24
e-maila:
aldibielgoibar@nortekar.com



Amillaga auzoa 22
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 17 35
Faxa: 943 76 17 35

Txoznek hainbat berrikuntza aurten Batzorde berria martxan eta txozna bat San Martin plazan

Bideberri eta San Martin plaza.
Eguakitzetik martitzenera.

Hainbat berrietasun izango ditugu aurten txoznen inguruan: batetik, San Martin plazan txozna jarriko da aspaldiko partez; bestetik, Bideberriko txozna gunea kudeatzeko Txozna batzordea sortu da; eta, azkenik, Bideberri segurtasun neurriak hartuko dira, iazkoaren moduko istripurik gerta ez dadin.

Arestian aipatu bezala, txoznekin lotura duten hainbat berrietasun izango da aurten. Bost txozna jarriko dira Bideberri, eta bat, aspaldiko partez, San Martin plazan. Bideberriko guneari dagokionez, Txozna batzordea sortu da aurten estreinakoz. Bost talderen ekimena izan da: AEK, EHE, Ikasle Abertzaleak, Amnistiaren aldeko Batzordeak eta Gazte lokalaren aldeko taldearena, hain zuzen. Batzordeak, egitarau ofizialaz aparteko ekitaldi sorta antolatu du. Egitarau propioa sortzeko arrazoia, txozna gunea jai-gune berezitu bezala gorpuzten joateko lehen urratsa ematea da; txozna guneari nortasun propioa eman nahian azken batean.

Ekimen hau aurrera eramateko, hiru asmo nagusi dituzte batzordekideek. Batetik, herritarrak ikusle soil izan beharrean, partehartzaile zuzenak izatea nahi dute. Bestetik, jaiak arazoak ahazteko baino, hauek azalertzeko egunak izatea nahi dute; eta, azkenik, txoznak, euskaraz egindako ekitaldien gune bihurtzea nahi dute.

Honekin guztiarekin, txoznetako gune biziberrituan hainbat ekitaldi izango da, eguakitzean hasi eta martitzenera bitartean. Txoznetara hurbiltzen zaretenok, beraz, adi, ondoko koadroan zehaztuta datorren egitarauarekin.



Urtero bezala, eguakitzean, arratsaldeko zortzietan irekiko da txozna gunea.

ARTXIBOA

Txozna gunean euskal egitaraua bultzatuko da

Eguakitzita 9

- 20:00**
- Txoznen irekiera: Idoia eta Enaitz bertsolariak Itxaro eta Unai trikitilariak Trikipotea

Zapatua 10

- 17:00**
- Jaietako argazki erakusketa

Domeka 11

- 20:00** •Afari-merienda eta txotxa (500 pta.)
22:00 •Erromeria Trikitake taldearekin

Astelehena 12

- 18:00**
- Herri olinpiadak: sokatira, kaskara jokia, kupel jokia, kukañak
 - Bertso jaialdia; edonork har dezake parte. Gaiak: lehenengo mozkorra, lehenengo muxua, zergatik kadukatzen zaizkie kondoiak gazteei eta biharamuna. Ondoren, sari banaketa
 - Trikipotea

Martitzena 13

- 24:00** •Itxiera ekitaldia

Ipiñarri zerrategia S.L.

MUEBLEAK. AROZGINTZA. ERAIKUNTZA. ENBALAJEA

IBARRA z/g. 20570 BERGARA. TELEFONOA: 943 76 15 93.

TXOZNA BAT PLAZAN

Bideberriko txoznez gain, aurten, San Martin plazan ere txozna bat jarriko da, Banco Guipuzcoanoren parean. San Martin plazan txozna bat jartzea Udalarren ekimena izan da, eta bere helburua, bertan egongo diren ekitaldiekin batera, plazari bizitasun handiagoa ematea da. Azken batean, jendea kalean gora eta behera dabilenean, plazan geratzeko aukera izan dezan. Txozna honetaz, Xamatx dantza taldea eta Arizeta abesbatza arduratuko dira. Egunez irekita egongo da, eta, gauez, ekitaldiekin batera itxi. Bestalde, sukaldaritza txapelketako egunean banatuko den txorizo pintxoarekin tragoxka bat hartzeko aukera ere emango du.



Txoznak taberna soil baino gehiago direla erakusteko asmoa du Txozna batzordeak.

ARTXIBOA

SEGURTASUN NEURRIAK

Aurreko urteetan izandako istripuak kontuan izanda, Raul Luque gaztearena esaterako, bi metrotik gorako hesia jarriko du Udalak txozna gunean. Hesia, orain dagoen harrizko hesira eta lurrera lotuko da, eta guztiz laua izango da, inor igo ez dadin. Luzeerari dagokio-

nez, Txurrerian hasi eta Bideberriko espaloia amaitzen den tokira arte luzatuko da.

Txoznak Bideberriko kendu eta Seminarioan jartzeko aukera aztertzen aritu dira Udalean. Hala eta guztiz ere, aparkaleku eskasiak eraginda, baztertuta gelditu da aukera hau.<

Raul Luque geroz eta hobeto eta etxean dagoeneko

Istripua izan zenuenetik urtebetera, zer moduz zaude?

E. Ondo nago. Poliki-poliki geroz eta hobeto.

G. Ia bederatzita hilabete eman dituzu Aita Mennin. Zer nolako zainketak izan dituzu bertan?

E. Fisioterapia, logopedia eta psikologiako tratamenduak jasotzen ditut. Bestalde, eskulan asko ere egin behar izan ditut. Hil hauean guztietan, gaua ere ospitalean ematen nuen, baina duela hiru aste, etxera etorri nintzen, eta orain ordu batzuk ematen ditut bertan. Asteaz hirutan hiru ordu eta bitan ordubete.

G. Hobeto zaudela aipatu duzu...

E. Hasiera batean ezin nintzen aulkitik altxatu, eta lotuta ere egon behar nuen, gorputzari ezin niolako tente eutsi. Bes-



talde, ezin nuen berba egin eta besoak mugitu ere ez. Orain, zutik egon naiteke eta laguntzarekin pausu batzuk eman ere bai. Eta ikus dezakezun moduan, berba egiteko gauza naiz. Aurrerapen ederrenetako bat. Oraindik ere asko dut aurreratzeko, izan ere, paraplejia eskuin aldean daukat, eta besoak ezin dut mugitu. Hori dela eta, ezkerreko besoak erabil-

tzen irakatsi didate Aita Mennin, orrazteko, idazteko eta abar.

G. Medikuek hasieran ez zuten uste horrelako aurrerapenik egingo zenuenik.

E. Oraindik ere askoz hobeto jarriko naizela esan didate, bizitza normala egiteko lain, nahiz eta agian herren. Baina hasieran, gauzak oso beltz jarri zizkieten gurasoei, betirako

gurgildun aulkian geratuko nintzela esan zieten. Niretzat, hala ere, denbora oso poliki doa, eta batzuetan etsita sentitzen naiz, kontuan izanda, batez ere, urtetik gora beharko dudala oraindik normaltasunerantz jotzeko.


G. Oso lagun onak dituzu. Asko lagundu dizute.

E. Eta izugarri eskertzen diet koadrilakoei eta herritar guztiei nigatik egindako guztia. Bihotzetik eskertu, gainera.

G. Jaietan aterako zara?

E. Eguakitzean afaltzera joango naiz lagunekin. Txoznetara, baina ez naiz hurbilduko badaezpada. Entzun dut segurtasun neurriak hartuko direla aurten, eta egia esan ezinbestekoa iruditzen zait. Behintzat, niri gertatu zaidana beste inori ez gertatzeko.

ZAPATUA 10
Afaria zuzeneko
musikarekin





MARTITZENA 13
Bazkaria koadrilendako
zuzeneko musikarekin

JAIK GOZOTASUNEAN PASATZEKO

San Juan auzoa, Elgetako bidea, Bergara. Tf. 943 76 35 51.

Gorde ezazu lekua!

B E R G A R A




Luis Mari Azkargorta



Jabier Lazkano



Eukene Gracia



Mikel Zubimendi



Jose Migel Gaztelu



Xabier Oregi




Luis Etxeberria



Mikel Askasibar



Jose Mari Etxaniz




Iñaki Arietaleaniz



Iñigo Elkoro

**JAIK BAI EUSKAL PRESOAK ETA ERREFUXIATUAK
EUSKAL HERRIRA ERE BAI**



Bergarako Euskal Presoak Euskal Herrira taldea




ILEAPAINDEGIA

**DIEGO
VALOR**

**Zorionak
denoi!**

BERGARA



• **Mistoa eta estetikoa:**
Zubieta 38, behea Tf.: 943 76 37 70

• **Gizonezkoak:**
San Lorentzo 2, behea Tf.: 943 76 58 08

• **KING'S ileapaindegia:**
Zarugalde 23 , behea. Tf.: 943 79 84 88 ARRASATE

BOLU SUKALDEAK



2.000 eguneko
garantia
(5 eta 6 urte
artean)

Ondo pasau jaixetan!!

Bolu 22, behea - BERGARA Telefonoa eta faxa: 943 76 27 02

ESKA EZAZU AURREKONTUA KONPROMISORIK GABE

GURE PUBLIZITATERIK ONENA, GURE BEZEROEN SATISFAZIOA

Zer da gehixen gustatzen jatzuna Pazkuetan? Nun ibiltzen zara?



MAITANE CASAS

Barraketan ibiltzia. *Platanoa* da gehixen gustatzen jatena. Goizez, arratsaldez eta gabez be joaten gara eta primeran pasatzen dogu, batzutan lagunekin eta bes-tetan gurasuekin. Bitoriana-txo ikustera be joango gara.



ANA MADINABEITIA

Barraketan denbora asko emoten dogu; noria eta *aguila* gustatzen jat gehixen. Koadrillan neskak bakarrik ibiltzen gara eta primeran pasatzen dogu. Gabetan, 12ak arte edo ibiltzen lagatzen doskue.



XABIER GARITAONANDIA

Barraketan egoten dan girua asko gustatzen jat, diru dana hantxe gastatzen dogu. Jaixetarako zerbait aurrezten dot, eta pagia be emoten doste. Aurten, nahiko garestixak ei die barrakak.



IRAIDE BIRUMBRALES

Jaixetako gauzarik onena egoten dan girua eta barrakak, dantzaldixak eta horrelakuak die neretako. Batez be barraketan, Plazan eta Seminarixuan ibiltzen gara. Gauez, ordu bi t'erdiak arte-edo ibiltzen gara.



IRATI ALTUNA

Barraketan, Seminarioan eta gabian dantzan ibiltzen gara, batez be. Bitorianatxo be ikusten dogu, eguakitzean eta martitzenean. Barraketatik *rodeo* izenekua gustatzen jat gehixen, eta zezenen jolasekin be ondo pasatzen dogu. Gabez hobe.



UNAI ORGAZ

Tiobibuak dira gehixen gustatzen jatena, *aguila* batez be, bueltak emoten dittuen barraka altu bat. Diru gehixena han gastatzen dogu. Barraketatik aparte, kalian lagunekin ibili eta gabez bueltatxo bat emon, 12ak arte edo.



JON PEREZ

Barraketan ibiltzen naiz gehixen. *Autotxokiak* asko gustatzen jat. Zezen plazan egoten dien jolasak be ikusgarrixak die eta hara be joaten gara koadrilakuok. Ahal dogun eta gehixenetan hartzen dogu parte lagunok.



MIKEL GALLASTEGI

Autotxokiak gustatzen jat neri. *Rodeo*, mobitzen dan zezena, be ondo dago. Aurten garestixak ei die, baiña paga nahikua izaten dogu. Gabez, txoznetan eta Bideberriko kontzertuetan ibiltzen gara, berandura arte. Goizian, zezenera...

ELKAR fotokopiak

Arruriaga 1, behea. Tf. eta faxa 943 76 58 16.

Fotokopiak
Plastifikazioak DIN A4 eta DIN A3
Fax zerbitzua
Enkuadernazioak
Eskolarako materiala

Planoen kopiak
Kautzozko zigiluak
Faszikuluen enkuadernazioa
KOLORETAKO FOTOKOPIAK LASERREAN !
PLANOEN KOPIAK, ESKANEATZEA ETA PLOTEATZEA



BASERRITARRAK PAZKUETAN, 1962

Askok eta askok gogoratuko dutenez, garai bateko Pazkuetan estanpen lehiaketa izaten zen jaietako ekitaldirik arrakastatsuenetariko bat. Zenbait koadrilak gai baten inguruko mozorroak lantzen zituzten, eta kalez kale ibiltzen ziren giroa alaitzen. Garai hartan indarrean zegoen zentsura, telebistako serie arrakastatsuren bat, Espainiako Itzulia Bergararik igarotzea edo Lemoizeko zentral nuklearra izaten ziren orduko gazteen parodiarako gaiak. 1960 eta 1970eko hamarkadetan estanpen lehiaketak ikusmin handia sortu zuen herritarren artean, eta partaideek lan handiak hartzen zituzten estanpak gertatzen. Beste garai batzuk ziren, eta estanpen lehiaketa indarra galtzen hasi zen, jai egitarautik desagertu zen arte.

Goiko argazkian ageri diren gazteak (18-19 urte izango zizuten orduan) baserritar jantzita joan ziren 1962ko Pazkuetan. Argazkia Udaletxeko Pleno aretoan aterata dago, eta, esan digutenez, herriko kaleetan karroza dotore batekin ibili ziren. Primeran pasatu ei zuten, baina ez dakigu urte hartako edizioan saririk eskuratu zuten. Hona hemen zeintzuk diren argazkian ageri direnak, ezkerretik eskumara:

Goian: Pedro Epelde, Mari Tere Laskurain, Luis Abajo, Pili Mujika, Jabier Belastegi, Inmaculada Gallastegi eta Javier Ruiz.

Makurtuta: Juan Gallastegi, Lidia Aranburu, Iñaki Arriaran eta Maria Jesus Laskurain.

Argazkia: Jabier Belastegi



umelaga
JATETXEA

*Jai zoriontsuak izan
ditzazuela denok!*

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21

58 urte zuen zerbitzura!



LAKET
Barrenkalea 35. Tf. 943 76 03 98

LAKET · LAKET · LAKET · LAKET



LAKET Txiki eta LAKET Emakumezkoak
Irala 5. Tf. 943 76 37 41



Emakumezkoendako, gizonetzkoendako eta ume eta gazteendako
imajina dezakezun erropa dena zeure eskura.
Eta marka onenak!




Kruz Gallastegi 3 BERGARA
☎ 943 76 07 37

*Eta orain gazteendako, umeendako
eta ume jaio berriendako altzariak
aurkituko dituzu denda berrian*



**Tapizak,
moketak,
alfonbrak**



Zuretzat,
bidalketa sistema
fidagarri bat edukitzea
ez da aukerarik garrantzitsuena.

Bakarra da.

BIDALI BEHARREKO ZERBAIT
GURE ESKUETAN JARTZEN DUZUNEAN,
AHALEGIN ETA ITXAROPEN OSOZ
EGINDAKO LANA, JASO DUGUN MODUAN
MERKATURATZEA NAHI DUZU.
BESTALDE, BEZEROEKIKO KONPROMISO BATZUK
BETE BEHAR DITUZU,
ALDI BEREAN HAUEK ERE
BERAIENAK BETE AHAL IZAN DITZATEN.
BIDALKETA,
ZEURE NAHIAREN ARABERA
EGITEA ESKATZEN DUZU,
BESTERIK EZ.
HORI DELA ETA, BIDALTZE SISTEMA EGOKI
ETA GUZTIZ FIDAGARRIA ESKAINTZEN DIZUGU,
HORRELA ZEURE BETEBEHARRAK
GARAIZ BETE DITZAZUN.
HORRELAKO XEA DUZU ENPRESETAKO PAKETEAK
ATEZ ATE BANATZEN,
ERABATEKO ESPEZIALIZAZIOA
ETA NAGUSITASUNA LORTU DUEN ZERBITZUA,
GUIPUZCOANAREN ZERBITZUA. ZEUREA.



GUIPUZCOANA
EURO EXPRESS



Beti garaiz.